

Taun Taun taldea

Txotxongilo mostra prestatzen ari da
BERGARA, 20-21



Garaipenik ez preferente mailan

Aloñak sailkapeneko lider jarraitzen du, baina bi puntura du Real Union
KIROLA, 12-13

Tomas Igartzabal

100 urteko apaizak meza esan zuen
GEUREAN, 5



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko maiatzaren 1a • 3. urtea • 99. zenbakia • 0,90 euro

Ionut Zinca errumaniarra nagusitu da aurten ere Aloñako II. Igoeran

Iaz egindako errekorra 50 segundoan hobetzea lortu zuen atzo, 1:13:23 eginda

DEBAGOIENDARRAK

Debagoiendar azkarrenak Ernesto Lorenzo eta Gurutze Altuna oñatiarrak izan ziren

IKUSLE UGARI

Eguraldia lagun, jende asko bildu zen Aloñako magalean zein Oñatiko helmugan

254 PARTE-HARTZAILE

254 korrikalari elkartu ziren Oñatiko irteeran lasterketa egiteko; tartean, 14 emakume

Hirugarren iritsi zen Aloñako tontorrera, baina iaz bezala jaietsieran irabazi zuen denbora Ionut Zinca lasterkari errumaniarrak. Hura izan zen lehenengoa Oñatiko plazako helmugan.

Eguraldia lagun izan zuten lasterkariak eta jende asko hurbildu zen Oñatira mendi lasterketarekin gozatzeraz. **16-17**



Imanol Etxeberria beasaindarra izan zen lehenengoa Aloñako tontorrean; 49 minutu eta 24 segundo behar izan zituen. Laugarren izan da sailkapenean.

XABIER URTZELAI

Herri eskubideak hizpide HUHEZIn

Bi egunez 65 lagunek jarraitu dituzte zortzi adituren ekarpenak

Bi izan dira hausnarketarako proposatutako abiapuntuak: nazioarteko komunitatearen egitura eta gobernu ez zentralen herri eskubideen bermea egitura horren barruan. Adituak bat etorri ziren: molde berriak sortu behar dira gobernu ez zentralen nazioarteko oihartzuna izateko. **2-3**

200 dantzari inguru aritu ziren Oñatin

Zapatuan ospatu zuten euren egun handia ibarreko dantzariak **4**

Mundumira jaialdia abian da

Asteon hasiko dira munduko kulturen jaiarekin lotutako erakusketak **8**

Langileen egoera salatuko dute

Besteak beste, lan-ezegonkortasuna, langileen gaur egungo egoera eta lan erreforma aldarrikatuko dituzte gaur, Maiatzaren Lehenean, sindikatuek. Ibarrean ez da ekitaldirik egongo, baina hiri-buruetako deialdietara joateko autobusak antolatu dituzte. **6**

GEUREAN

- Ibarreko 200 bat dantzari batu ziren zaptuan Oñatin dantzari egunean | 4
- 100 urteko Tomas Igartzabal izan zen atzo protagonista Oñatiko parrokian | 5



Nerea Ruiz de Azua
arrasatearrarekin
Gaztetxe
Martxaz jardun
dugu | 6

HERRI ESKUBIDEEN GAINEKO JARDUNALDIAK HUHEZI-N



Jardunaldietara gonbidatutako aditu guztiak bat etorri dira: nazioartean polo politiko berriak sortzen ari dira eta garrantzitsua da munduko herri mugimenduek euren lekua aldarrikatzea.

GOBERNU EZ ZENTRALEN BORROKA | EGUNGO NAZIOARTEKO EGITURAN HERRI ESKUBIDEAK NOLA BERMATU AZTERTU DUTE BI EGUNEZ HUHEZI-N

Nazioartean oihartzuna izateko funtsezkoa da molde berriak sortzea

Antolatzaileek balorazio positiboa egiten dute, baina gaiaren gaurkotasuna ikusirik euskal komunitate politikoaren presentzia faltan sumatu dute jardunaldiotan

Larraitz Zeberio

Herri eskubideak eta mundu gobernantza izan dute hizpide eguen eta barikuan Eskoriatzako HUHEZI fakultatean. Zortzi hitzaldik osatu dute unibertsitateak Herri Eskubideen Ikasgunea Sortzen elkartearrekin batera antolatutako jardunaldiotako egitaraua eta 65 lagunek jarraitu dituzte esparru oso ezberdinetako adituok egindako hausnarketak.

Gogoeta bultzatzea zen antolatzaileen helburu nagusia eta bi abiapuntu izan zituen hausnarketak: alde batetik, nazioarteko komunitatearen egitura eta egungo botere banaketari buruzko eztabaida; bestetik, gobernu ez zentralen herri eskubideen bermea egungo nazioarteko komunitatean. "Aditu asko entzun ditugu", esan zigun jardunaldien amaieran HUHEZIKO irakasle Elena Belokik, "eta

antzerako ondoriora heldu dira guztiak: ez zentralak diren erakundeek molde berriak sortu behar dituztela, nazioarteko komunitatearen euren parte-hartze politikoa gauzatzeko". Mundua bestelako nazioarteko egitura diseinatzen ari dela azpimarratu zuten adituek eta prozesu horretan herri mugimenduen ardura handia dela nabarmendu zuten. "Jarrera irekiak, autokritikoak eta sortzaileak" ezinbestekotzat jo zituzten eta mundu osoko herri mugimenduen arteko lankidetzak funtsezko lantresna izan daitekeela ohartarazi zuten.

Asko dira mundu osoan euren eskubideak aldarrikatzen dituzten herri mugimenduak. HUHEZIKO jardunaldietan mota guztietako prozesuak alderatu

ziren: Sobietar Errepublikak, Kosovo, Montenegro, Txetxenia, Mendebaldeko Sahara, Sami herria, Irlanda, Latinoamerikako indigenak, Sri Lanka, Irlanda eta, noski, Euskal

Herria. Guztiengandik dagoela zer ikasi adierazi zuten adituek.

BALORAZIO POSITIBOA

Antolatzaileak pozik daude jardunaldiok jasotako erantzunarekin. Euskal Herrian gaurkotasun handiko gaia izanik argi ikusi dute hitzaldiok interes handia piztu dutela. "65 pertsonak jarraitu dituzte jardunaldiok eta komunikabideek eskainitako arreta ere handia izan da", adierazi digu Elena Belokik. "Esparru oso ezberdinetako jendea etorri da: ikasleak, irakasleak, herri mugimenduetan zein giza-eskubideen esparruan lan egiten duen jendea... Jakin-mina sumatu dugu, eta benetako interesa. Eta gelditu zaigun inpresioa da gaia gehiago sakontzeko beharra dagoela".

"Nazioarteko ordena berridazten ari da, baina eztabaida-gune berriak sortzen ere"

"Mundu osoko herri mugimenduek bat egin beharko lukete nazioartean euren tokia lortu aldera"

HERRI ESKUBIDEEN GAINEKO JARDUNALDIAK HUHEZI-N

JAUME REYNER | AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEAREN ALDEKO KATALUNIako FUNDAZIOKO KIDEA

"Gure lekua egin behar dugu nazioarteko komunitatean"

L.Z.

Jaume Reyner Zuzenbide Publikoko irakaslea da Tarragonako unibertsitatean, baita ERCko kide ere. Autodeterminazio eskubidea XXI. mendean hitzaldia egin zuen HUHEZIn.

Zer da autodeterminazio eskubidearen aldeko Kataluniako fundazioa?

Tamaina txikiko taldea gara eta Europa mailara mugatzen dugu gure jarduna. Saiatzen gara autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen duten herri mugimenduen jarraipena egiten. Beste herri batzuen esperientzia aztertu eta baloratu egiten dugu, batez ere autodeterminazio eskubidearen bitartez aldaketa politikoak lortu badituzte. Aberasgarria da eta oso interesgarria, gero gure ondorioak ateratzeko.

Asko dira European autodeterminazio eskubidea gauzatzea izan duten herriak?

Badaude batzuk, baina prozesu ezberdinak bereizi behar dira. Estonia, Letonia eta Lituania, esaterako, Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasuna desagertu zenean independizatu ziren, 1991n. Ez zen herri kontsultarik egin, ez zen prozesu demokratikoa izan. Herri horietako parlamentuek independentzia-dekla-

razioa egin zuten. Guretako interesgarriagoak dira Montenegro eta Kosovoko prozesuak. Serbiarengandik bereizi nahi dute eta Montenegron, esaterako, herri kontsulta egingo dute maiatzaren 21ean. Ez da Serbiarengandik erantzun bortitzik espero une honetan, ez baita gauza independentziaren aldeko mugimendu horri aurre egiteko.

Horrelakorik aurreikus daitezke Euskal Herriarendako edo Kataluniarendako?

Frantzia eta Espainiako estatuak ez dute momentuan horrelakorik aurreikusi ere egiten. Nazioarteko komunitatea, ordea, eraldaketa bidean da eta ez zen-

tralak diren gobernuen papera etorkizunean zein izango den definitzeko dago. Hor egon daitezke gure aukera.


Mendebaldeko Sahara, Txetxenia, Kurdistan... Konpontzeko dauden gatazkak dira horiek guztiak?

Horrela da, eta luze joko dute, gainera. Une honetan Nazio Batuen Erakundea ez da gatazka horiek konpontzeko gauza. Nahiz eta giza eskubideen deklarazioak autodeterminazio eskubidea jaso, bost potentziak agintzen dute nazioarteko erakundearen eta gatazkaren parte dira. Errusiak ez du bere barne politikan nazioarteko komunitatearen esku-hartzerik onartzen. Mendebaldeko Sahararekin gertatzen dena lotsagarria da, eta beste horrenbeste gertatzen da beste hainbat herrialderekin. **Belgikak bere lurraldean bizi diren frankofonoen eskubideak errespetatzeko konpromisoa hartu du. Horrelako esperientziak ere jarraitzen dituzue, ezta?**

Formula berezia da hori ere, kataluniarro oso interesgarria iruditzen zaiguna. Katalan hiztun asko bizi da Pirinioetatik beste aldera, guk Catalunya Nort deiturikoan. Interesgarria izango litzateke Frantziako Estatuak komunitate horren hizkuntza eskubideak onartu eta errespetatuko balitu. Kasu bera planteatu daitezke, esaterako, Ipar Euskal Herriarendako.

"200 estatuk osatzen dute Nazio Batuen Erakundea, eta munduan 6.000 herri daude"

"Autodeterminazio eskubidea estatuen maila demokratikoa neurtzen duen termometroa da"



Jaume Reynerrek autodeterminazio eskubideari buruzko hitzaldia egin zuen.

Nola definituko zenuke autodeterminazio eskubidea?

200 estatuk osatzen dute Nazio Batuen Erakundea, eta munduan 6.000 herri daude. Autodeterminazioa eskubide bat da, herri horiek euren etorkizuna erabakitzeke duten esku-

bidea, hain zuzen ere. European autodeterminazio prozesu asko daude irtenbide baten zain. Gehituko nuke autodeterminazio eskubidea termometroa dela; estatuen osasun demokratikoa neurtzen duen termometro fidagarria, hain zuzen ere.

• ZEIN AUKERA DITUZTE GOBERNU EZ ZENTRALEK EGUNGO NAZIOARTEKO EGITURAN?



ALEJANDRO TIETELBAUM | JURISTA

"Nazio Batuen Erakundeak ez du gatazkarik konpontzeko borondaterik"

Nazioarteko egiturak beti egongo dira botere ekonomikoaren alde. Nire ustez herri mugimenduek eraginkorragoak izan daitezke. Formula berriak aurkitu behar ditugu presio egiteko. Ameriketako Estatu Batuetako latinoamerikarrek, esaterako, boikot eguna deitu dute gaurko. Produktu estatu-batuarririk erosteko dei egin dute.



VERENA GRAF | HERRIEN ASKATASUNERAKO LIGA

"Garrantzitsua da manifestazio jendetsuak egitea, kalera irtetea"

Irregularitasun handiak gertatzen dira eta ez dira beti herrien askatasuna eta eskubideak errespetatzen. Norbanakoen indarrean sinisten dut nik. Garrantzitsua da kalera irten eta gure ahotsa ozen entzunaraztea. Agian iruditzen zaigu ahalegin hutsala dela, baina politikariek ezin dute beti entzungor egin.



AMAIA ANDREU | JENEROAN ADITUA

"Nazioartea plataforma bat izan daitezke, baina herri mugimenduek dute giltza"

Gatazken konponbidean jenero dimentsioa aztertzen dut nik eta asko da herrien ekimenak alderatzekoan ikas daitekeena. Nazioarteko erakundeek ez digute irtenbiderik emango. Plataforma interesgarria izan daitezke esperientziak bateratu eta alderaketa egiteko, baina ez da gure arazo konponbidea izango.



NATALIA ALVAREZ | ZUZENBIDEKO IKERLEA

"Nazioartean gaizki ikusita dago bere minoriekin arazoak dituen estatua"

Poliki baina gauzak aldatzen ari direla uste dut. Nazioartean gaizki ikusita dago bere gutxiengoekin arazoak dituen estatua. Gobernu zentralak gero eta arreta handiagoa jartzen ari dira auzi horiei. Ez beti konponbidea aurkitzeko borondate tinkoa dutelako, baizik eta nazioarteko erakundeekin arazorik nahi ez dutelako.



KOLDO GOROSTIAGA | HERRI ESKUBIDEEN IKASGUNEA

"Euskal Herriaren kasuan ezinbestekoa da subjektu juridikoa gauzatzea"

Gure kasu konkretuan subjektu juridikoa gauzatu behar dugu lehenik eta behin. Ez dago autodeterminaziorik, ez dago askatasunik, Euskal Herriko jendearen gehiengo argi batek euskal herriko partaidea dela aitortzen ez badu. Gero, zer-nolako erakundetze mota aukeratu dugun bigarren mailako eztabaida da.

DANTZA TALDEAK | IBARREKO DANTZARIEN TOPAKETA OÑATIN



JOSETXO ARANTZABAL

Dantza talde guztietako mutilek egin zuten Bizkaiko dantzari dantza elkarrekin.

Ibarreko dantza taldeen eguna ospatu zuten Oñatin

200 dantzaritik gora ibili ziren zapatuan herriko kaleetan zehar dantzari eguna ospatzen

Jon Berezibar

Oñatiri egokitu zaio aurten hamaseigarren dantzari eguna antolatzea, eta zapatuan egin zieten harrera txantxikuek Arrasate, Antzuola eta Sorluzetik etorritako dantzari. Guztira, 200 bat neska-mutiko ibili ziren Oñatiko kaleetan dantzan, 10:30ean hasita.

Oñatz dantza taldekoek ongi-egindak, kalejira egin zuten eguerdira arte Arrasateko Lore Gazteak eta Arrostaitzekoek, Antzuolako Oinarinekoek eta Sorluzetik etorritako Urrats taldekoek. Eguerdia gerturatu ahal, gero eta jende gehiago animatu zen kalera. Lehenengo aldiz egin da egun hori zapatu baten, baina horrek, antolatzaileen arabera, ez du jendearen etorreran eragin. Jesus Irizar, Oñatzeko arduradua

netako batek, azaldu bezala, "jende asko azokatik irten eta plazara gerturatu" zen dantzak ikustera eta alarderako jendetza bildu zen herriko plazan ibarreko taldeak ikusteko. Parte-hartzaileen kopuruari dagokionez, pozik daude Oñatzekoak jasotako erantzunarekin, "nahiz eta pena izan den Aretxabaletako eta Bergarako taldeek ezin etorri izana".

Hala, 12:30ean hasi zen talde guztiak batu zituen alardea, txistulari eta guzti. Euskal Herriko lurralde guztietako ekarpenak egin zituzten dantza taldeek eguerdikoa

saioan. Dantza talde bakoitzeko bikote batek agurra egin ostean, Oñatikoek Zuberoako dantzekin ireki zuten emanaldia eta Sorluzekoek *batelerak* dantzatu zituzten. Bizkaiko dantzari dantza talde guztietako mutilek egin zuten eta gero neskek zinta dantza. Arrasateko Lore Gazteak taldekoek Gasteizko dantzak egin zituzten eta amaitzeko Tuterako jota egin zuten talde guztiek elkarrekin.

Bazkalordurako Etxer-Haundi jatetxera joan ziren dantzariak eta arratsaldeko bostetan bigarren alardea egin zuten, eguna amaitzeko. Horrez guztiaz gain, ilunkeran Giokelaren laguntzarekin saiheski erre dastatzea antolatu zuten, sagardo eta ardoarekin lagunduta. Herriko plazan izan zen, eta batutako dirua Oñatz dantza taldearendako izango da.

• ALARDEAN EGIN ZUTEN BAT TALDEEK



UGAITZ, ANE ETA DOMENTX | SORALUZE

"Ez gara ez debagoiendarrak ezta kostaldekoak ere baina gaur Oñatin arraun-dantza bat egingo dugu"

"Sorluzetik 22 bat lagun etorri gara, txistulariak barne". Sorluzekoek, Debagoienekoak ez izan arren, beti hartu izan dute parte dantzari egunean eta aurten ere ez dute huts egin. Era berean, kostaldetik urrutitxo egon arren ere, *batelerak* dantzatu zituzten alardean, arraun eta guzti. Ez da salbuespena Debagoieneko dantza taldeekin batera Sorluzeko Urratsekoek ere parte hartzea, betidanik egin da eta horrela; eta Sorluzen bertan ere ospatu izan da egun hori behin baino gehiagotan gainontzeko taldeekin batera. Berezia izan zen haien dantzen aukeraketa.



AIMAR, AITOR ETA UNAI | OÑATI

"Zuberoako dantza batzuk egin ditugu egun honetarako bereziki prestatu ditugunak, ohikoez gain"

Talde anfitrioi moduan, geratu barik ibili ziren Oñatiko Oñatz dantza taldeko kideak. Alarderako Zuberoako dantzak prestatu zituzten; saio berezi moduan "urtero normalean dantzatzan ez" dituztenak prestatu ohi dituzte, gainera, Dantzari Egunerako. Gutxi gorabehera 40 bat lagunek osatzen dute Oñatz dantza taldea, umeak kontatu barik. Neska eta mutilek batera, Zuberoako dantzez gain, zinta dantza eta jotak ere dantzatu zituzten.

• ALARDE KOLORETSUA ETA DANTZA AUKERAKETA ZABALA



ZUBEROAKO KOLORE BIZIAK. Jantzi koloretsuarekin eta musika alaiarekin Zuberoako dantza sorta polita egin zuten Oñatiko Oñatz dantza taldekoek. Alardean, Euskal Herriko ia lurralde guztietatik ekarri zituzten dantza taldeek, eta horrela saio oso ikusgarria egi- tea lortu zuten, dantza mota askorekin.



SAIHESKIAK GUZTIENDAKO. Eta arratsaldeko alardea amaitu eta dantza talde guztiak agurtutakoan, okela-dastatzea ere egin zuten. Giokelako babesarekin saiheski erre prestatu zuten herriko plazan. Oñatzekoak ibili ziren zerbitzari; izan ere, dantza taldearendako izango da batutako diru guztia.

IRIARTE

Umeen
denda
•
Helduen
lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



Tomas Igartzabal abade oñatiarrak senitarteko eta adiskide ugari izan zituen lagun atzoko ospakizunetan.

Tomas Igartzabal abadeak 100. urtebetetzea ospatu du

Elizkizun berezia egin zuten atzo, domeka, Oñatiko parrokian; alkate Lourdes Idoiaga eta Vatikanoko bi ordezkari ere izan ziren

L.Z.

"Ilusio horixe daukat", esan zigun bezperan Tomas Igartzabalek. "Eskerrak eman nahi dizkiot Jainkoari, ehun urte betetzeko aukera eman didalako".

Martxoaren 6an bete zituen 100 urte Tomas Igartzabal abadeak. Oñatin aski ezaguna da Tomas eta asko izan ziren atzo eguerdiko meza entzutera hurbildu ziren lagun eta adiskideak. Gotzain jantzia soinean zuela parrokiako aldaire nagusitik jarraitu zuen meza Zubillagako abadeak.

ELIZKIZUN BEREZIA

Eukaristia hasi aurretik hartu zuen hitza Tomas Igartzabalek. Argentinan abade lanetan emandako 37 urteak izan zituen batez ere gogoan. Eskerrak eman zizkion Jainkoari, horrenbeste lagundu izanagatik.

On Sabinok esan zuen ondoren meza eta Oñatiko parrokoak Aita Tomasen lana goraiatu zuen bere predikuan. Elizkizun berezia izan zen atzokoa. Unerik hunkigarriena, ordea, amaieran iritsi zen, Vatikanoko ordezkari Guzman Carriquirik Tomas Igartzabal

bali zuzendutako hiru gutun irakurri zituenean. Lehenik Benedicto XVI.a aita santuak Aita Tomasi idatzitakoa irakurri zuen. Jarraian, Oñatiko abadeak lagun dituen Buenos Airesko artzapezpikuak zein Etxegarai kardinalak bidalitakoak irakurri zituen. Hirurek zoriondu zuten Oñatiko abadea eta eskertu, horrenbeste urtean egindako lanagatik.

IBILBIDE LUZEA

1906an jaio zen Aita Tomas. Burgosen ikasi eta 1925ean abadetu zen. Zubillaga auzoko elizan esan zituen lehenengo mezak, baina laster bidali zuten Argentinara. 37 urte egin zituen hantxe, txiroekin lanean. Erretiratu aurretik Zorroagako (Donostia) kaperako abade izan zen.

• SAN ANDRES AUZOKO JAIK ARRASATEN



JOSETXO ARANTZABAL

UMEEK JOLASAK ETA BOTIK GORAKOEK, LUNTXA

Arrasateko San Andres auzoan jaiak ospatu dituzte asteburuan. Baina batik bat umeengan pentsatutako ekitaldiek osatu dute asteburua. Gaur, astelehena, izango da jaietako azken eguna. 10:00etan joko dute diana Bilboko gaitariak. Eta gero egongo diren ekitaldien artean bi dira nabarmentzekoak: bata, Bedoñabe eskolako jolaslekuan jarriko duten umeendako jolasparkea; bestea, 80 urtetik gorakoei Extremadurako zentroan 12:30ean emango dieten luntxa.

• ELORREGI AUZOKO JAIK BERGARAN



JOSETXO ARANTZABAL

TXIKIENEN DANTZAK EZ ZIREN FALTA IZAN

Zapatuko bertso bazkaria eta Bergarako txikien dantza saioa ez dira sekula falta izaten Elorregi auzoko jaietan. Aurten ere, hutsik egin gabe, Elorregiko elkartean izan ziren zapatuan Amuriza eta Peñagarikano. Urteak dira Elorregiko jaietara datozena, eta urte guztiotan ez dute bikotekidea aldatu. Horrekin batera, atzo eguerdiko mezaren ondoren, Moises Azpiazu dantza taldeko txikienek ohiko saioa egin zuten.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com



Pribatizazioa salatuz zuten barikuan Bergarako Udaleko LABeko ordezkariak.

Langileen egoera salatuko dute sindikatuek gaur

Gurean ez da ekitaldirik egingo Maiatzaren Lehenean, baina sindikatuek autobusak antolatu dituzte hiriburuetara

M.B.

Besteak beste, lan-egonkortasuna, langileen gaur egungo egoera, berdintasuna eta lan erreforma aldarrikatuko dituzte sindikatuek gaur, Maiatzaren Lehenean.

Horren ildora, Debagoienan ez da gaiok aldarrikatzeko ekitaldirik egongo. Hala eta guztiz ere, sindikatuek autobusak antolatu dituzte hiriburuetan egingo dituzten ekitaldietara joateko.

PRIBATIZAZIOAREN AURKAKO BILKURA

Egubakoitzean, Laneko Osasunaren Nazioarteko Egunean, elkarretaratzea egin zuten plazan Bergarako Udaleko LAB sindikatuko ordezkariak. Pribatizazioak langileen osasunari nola eragiten duen salatuz zuten agerraldian. Horrekin batera, lan baldintza hobekiak aldarrikatu zituzten eta kalitateko zerbitzu publikoen aldeko defentsa egin zuten LABeko ordezkariak.

Ekitaldiak

- **ELA**
Bilboko Jesusen Bihotzaren plazatik manifestazio nazionala abiatuko da 12:00etan.
- **LAB**
Eibarko Untzaga plazatik eskualdeko manifestazioa abiatuko da 12:00etan. Gero, ekitaldi politikoa eta bazkaria.
- **CCOO ETA UGT**
Donostiako Alderdi Ederretik manifestazioa abiatuko da 12:00etan.
- **ESK**
Bilboko Kale Nagusitik manifestazioa abiatuko da 12:00etan.

• PRESOEN ALDEKO APIRILEKO AZKEN EGUBAKOITZEKO ELKARRETARATZEA



JOSETXO ARANTZABAL

PRESOEN EGOERA SALATU ETA ALDAKETAK ESKATU ZITUZTEN

Askatasunak deituta, joan den egubakoitzean ere presoek alde elkartu ziren Arrasateko Herriko Plazan hainbat herritar. Euskal preso politikoen egoera gogora ekarri eta sakabanaketa salatuz zuten han bildutakoek, beste behin ere, apirileko azken egubakoitzean.

Elkarretaratzea hileroko azken ostiralean egin ohi da Arrasaten eta preso politikoei elkartzatzea adierazteko egin ohi dute. Elkarretaratzearekin batera herriko Askatasuneko kideek Arrasateko presoek eragari buruzko informazio-papera eskegi zuten etxeetako atarrietan.

Guretik egunean igaro eta Iruñerako bidean da Gaztetxe Martxa.

Arrasateko asanbladakoei eskatu diegu balorazioa.

NEREA RUIZ DE AZUA | AGAKO-KO KIDEA

"Kolorez eta bizitzaz jantzi genituen kaleak"

J. B.

Gustura Arrasatekoak martxak izandako harrerarekin?

Oso balorazio positiboa egin dugu, izan ere, eguraldi txarra egin arren, baina jende asko animatu zen. Arratsaldean tximeleta mezulariak bidali genituen martxa bazetorrela iragartzeko, eta gaueko kalejiran ikusi zen jendeak erantzun egin zuela.

Kalejira umela baina polita izan zen, ezta?

Kolorez eta bizitzaz jantzi genituen kaleak, alaitasunez. Euriak zapuztu zizuen planik?

Pixka bat tristatu egin zuen kontua, baina guztia aurrekusi bezala irten zen. Gu pozik geunden eta ondo irten zen guztia. Arratsaldean txalapartariak izan genituen bertsolariekin aterpean, eta ilunkeran luntxa egin genuen. Kalejirak, nahiz eta euriarekin, aurrera egin zuen.

Oñati izan zen ibarreko beste gune garrantzitsua. Han ere gustura?

Argi dago gaztetxearen aldarrikapenei dagokienez Oñatik izan behar zuela indar han-



J. B.

dien. Gauean kontzertuak egin zituzten eta badakigu jende asko elkartzera lortu zutela.

Martxistak zelan heldu ziren Arrasatera?

Oso nekatuta iritsi ei ziren, baina oso gustura. Maulen joan den astean hasi eta Arrasateraino iritsi dira. Iruñeraino asko daukate oraindik egiteko. Oso pozik etorri dira, martxa jasotzen dabilen erantzun beroarekin.

Zelan joan dira apirileko urterren-ospakizunak? Osasuntsu jarraitzen du asanbladak?

Barikuroko batzarretan lanean jarraitzen dugu. Batzuetan jende gutxi ibili arren aberasgarri izaten jarraitzen du. Hala ere, jende asko ibiltzeak ez du esan gura gehiago egingo denik. Guk gureari eutsiko diogu, beti bezala.

"Oso nekatuta heldu ziren 'martxistak', baina jasotako harrera beroarekin pozik"

Frankismoaren legeko akzioak deuseztatzeko eskatuko dute Arrasaten

M.B.

Arrasateko Udalak berretsi egin zuen barikuan, osoko bilkuran, gerra-krimenen eta humanitatearen aurkako irainen preskribiezintasunaren gaineko konbentzioa. Horrekin batera, estatuko botereei eskatuko die frankismoaren legeko akzio guztiak legez deuseztatzeko -epaiketara penal eta militar guztiak deuseztatzeko arbitrarioak eta ilegalek direlako-. Era berean, biktimei ordaina ematea eta kalte-tutako artxibo penal eta judizialak berreraikitzeak ere eskatuko die. Debagoieneko Fusilatuen Sanitarteko eta Lagunen Batzor-

deak aurkeztutako mozioari jarraituz hartu zuen erabaki hori osoko bilkurak, eta, bestelako neurrien artean, deuseztatzeko ADN datu bankuen normalizazioa aurreikusten ditu. Alderdi guztiek egin zuten bat mozioarekin, PP izan ezik. Azken hori abstenitu egin zen, "guztiondako une tristeak izandakoak gogora ekartzea ez delako onuragarri", PPko zinegotzi Itziar Lamarainek azaldu zuenez.

Bestalde, bilkurak beste mozio bat ere onartu zuen: PSE-EEK Pablo Ibarren familiari beste errekurso bat aurkezten laguntzeko eroandakoa, hain zuzen.

bodypainting lehiaketa

Zatoz **maiatzaren 5ean, 17:00etan**
eta goza ezazu gorputzeko makillajearen fantasiaz,
Boulevard dendaguneko bodypainting lehiaketan.

...sentitzen duzu?



Tel. 945 15 54 40
www.el-boulevard.com

PEUGEOT 207 BERRIA

Ez da auto hutsa, zerbait zirraragarriagoa da.



PEUGEOT

ZIORLA AUTOAK

ARRASATE

Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE Tel: 943 77 01 44

GRUPO ETORMOBIL

Albiste izango da

DEBAGOIENA | ELGETAN ETA GATZAGAN

Asteon hasiko dira Mundumira jaialdiari lotutako erakusketak

Oñatin egingo dute aurten Mundumira, munduko kulturen festa. Maiatzaren 26an, 27an eta 28an izango da, baina asteon hasiko dira, dagoeneko, jaialdiarekin lotutako ekitaldiak: bihar hasi eta hilaren 14ra arte *Saharar: 30 urte justizia eskatzen* izeneko argazki erakusketa egongo da ikusgai Elgetako Espaloian (Oñatiko kultura etxean hilaren 15etik 28ra jarriko dute). Era berean, Gatzagan *Nairobiarrak* izeneko erakusketa egongo da ikusgai bihartik hilaren 7ra arte Aretxabaletan, hilaren 8tik 14ra; Eskoriatzan, 15etik 21era eta Oñatin, 22tik 28ra.

ARRASATE | MAIATZAREN 5ERA ARTE

Arrasateko Euskalgintzak D eredu bultzatzeko kanpaina abiarazi du

Arrasateko Euskalgintzak martxan jarri duen kanpainaren helburua da DBHko 4.maila eta Batxilergoko 2. maila bukatzen duten ikasleak D ereduari matrikulatzeak dituen abantailez informatea eta kontzientziatzea. Horretarako, 600 diptiko banatuko dituzte ikasleentzako. Horrez gain, ikasleentzako gurasoei sentsibilizazio gutunak bidali dizkiete, ikastetxeen bidez seme-alabak euskaraz ikasten jarraitzea animatu dituzten. D ereduaren datuen bila-kaera positiboa izan arren, Arrasateko Euskalgintzak oraindik ere beharrezko ikusi du euskarazko irakaskuntzaren aldeko sentsibilizazio eta motibazio kanpaina hori. Maiatzaren 5era bitartean -2006-07 ikasturteko aurre matrikulazioa garaia- iraungo du.

ESKORIATZA | HAINBAT ALDAKETA EGIN DIZKIOTE

Auzo-bideen inbentarioa ikusgai dago maiatzaren 19ra bitartean

Udalak jendaurrean jarri du auzo-bideen inbentarioa. Udaletxe-ko bigarren solairuan daude plano eta azalpenak, eta ikusteko ordu-tegia da: asteleheneetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara. Maiatzaren 19ra arte aztertu ahal izango dituzte. Horren ostean, udalbatzarrek hasierako onarpena egingo dio maiatzeko osoko bilkuran. Orduan zabalduko dute bi hilabeteko epea alegazio ofizialak egiteko. Auzo-bideen inbentarioa egiteko premia aspaldikoa da eta Tomas Madinabeitia eskoriatzarri eman zion Udalak lan hori. Iaz egin zuen lana Madinabeitiak eta jendaurrean jarri zuten. Auzotarren eskariari jarraituz, hainbat aldaketa egin dizkiote hasierako inbentarioari.

BERGARA | MARTITZENETIK EGUBAKOITZERA ARTE

Artekale itxita egongo da asteon, hainbat lan egingo dituztelako

Artekale kalea itxita egongo da asteon. Bihar, martitzena, hasi eta hilaren 5era arte, egubakoitza, egongo da itxita, hain justu ere. Kale horretan hainbat lan egin behar dituztelako itxiko dute. San Pedro eta Irizar kaleetatik doazen ibilgailuak Burdinatera bideratuko dituzte, eta, hortaz, Barrenkale kaleko zirkulazioaren noranzkoa aldatu egingo dute; hala, San Martin plazan behera joango dira ibilgailuak. Bestalde, Arruriagako zabor edukiontzia Arrese kantoira pasatuko dituzte datorren asteke egun horietan.

BERGARA | MAIATZAREN 9RA ARTE

Pazkoetan txosna jartzeko baimena eskatzeko epea zabalik dago

Pazkoetan txosna jartzeko baimena eskatzeko epea zabalik du Udalak. Irabazi asmorik gabeko herriko edozein taldek eska dezake baimena. Maiatzaren 9an bukatuko da epea eta eskaria udaletxean egin behar da.

Horrez gain, Pazkoetako egitaraua gorpuzten doa dagoeneko. Erabakita dago zein taldek joko duten Bideberriko txosna-gunean. Horrekin batera, Koadrilen Eguna ere astelehenean izango dela aurreratu dute, eta, besteak beste, bazkaria eta jolasak egongo direla. Horrekin batera, jaietako kartel lehiaketa deitu dute. Lanak aurkezteko epea apirilaren 28ra arte dago zabalik.

Hitzorduak



PAINT-BALLEAN EGITEKO AUKERA DUTE BERGARAKO GAZTEEK |

Lasturren izango da jardunaldia, eta autobusa antolatu du Udalak

Paint-ballean egiteko aukera izango dute Bergarako ume eta gazteek maiatzaren 20an, zapatua, Lasturren. Izan ere, jardunaldia antolatu du Foru Aldundiak, eta Bergarako Udalak autobusa ipiniko du parte hartu nahi duten 12-20 urte bitartekoendako. Izenematea zabalik dago kultura etxean, 943

77 91 58 telefono zenbakian, eta maiatzaren 13a da mugaeguna. 20 euro ordaindu behar dira.

Taldean egiteko kirola da paint-balla, eta naturarekin kontaktua, ariketa fisikoa eta talde-lana bateratzen ditu. Estresa arindu eta adrenalina askatzeko oso ona dela diote adituek.

ANTZUOLA |

- Bertso afarirako txartelak salgai daude

Bertso afaria antolatu du Idolazek maiatzaren 5erako, Xabi Paya eta Oihana Bartrarekin, eta txartelak eros daitezke Mox, Larrea eta Ongi-Etorri tabernetan, 15 eurotan.

ARRASATE |

- Erretiratuendako luntxa izango da Corazon de Encinan Gaur, astelehena, erretiratuendako luntxa emango dute Corazon de Encina San Andresko elkarteak.

Auzoan bizi eta 80 urtetik gorakoak direnak daude gonbidatuta. Izena eman beharra dago aurretik udal-txan.

- Hasiberriendako taila ikastaroan izenematea

Hasiberriendako taila ikastaroa antolatu du ARTEK, Arrasateko Tailaginen Elkarteak. Izena emateko, deitu honakoei, gaez: Jose Mari (943 79 77 57) edo Felix (943 79 40 79).

- Hainbat ikastaro dago Emakume Txokoan

Honako ikastaroak hasiko dira maiatz hasieran: etxetresna elektrikoaren konponketa; autoen mekanika eta mantentze-lanak; argazkigintza digitala; eta nork bere burua defendatzeko. Argibideetarako edo izena emateko, deitu 943 79 41 39 telefono zenbakira.

BERGARA |

- 1927an jaiotakoek bazkaria egingo dute laster

27an jaiotakoek bazkarirako izena emateko, 15 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxa-ko kontu honetan: 3035 0009 17 0091113643.

- Droga-mendekotasunaren prebentzioa berbaqai

Drogamenpekotasunaren prebentzioa delako hitzaldia egingo du Agipad elkarteak bihar, martitzena, Mariaren Lagundian, 18:00etan.

- Musika eskolan matrikula egiteko modua dago

Ekainaren 15era arte dago matrikulatzeko aukera. Argibideak: 943 76 57 80.

- Udaleku irekietan ibili nahi duten umeen izenematea

Udaleku irekietan izena emateko aukera dute umeek maiatzaren 3tik 12ra, Xipizaro ludotekan, 17:00-19:00.

- 49an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute

Maiatzaren 13an bazkalduko dute Tartufo jatetxean. Autobusa izango dute. Izenematea zabalik dago Tartufon bertan.

DEBAGOIENA |

- Antzuola, Oñati eta

Bergarako helduen eskolak

Antzuola, Oñati eta Bergarako helduen eskolatan aurrematrikula egin daiteke. Argibideak: 943 76 44 52.

ESKORIATZA |

- Haurreskolan aurrematrikula egiteko aukera dago

Partzuergoko Haurreskolan izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 2tik 12ra bitartean, udaletxean.

OÑATI |

- 76ko kintoek 50. urteurrena ospatzeko afaria egingo dute

76ko kintoek, 56an jaiotakoek, afaria egingo dute ekainaren 3an, aurten beteko dituzten 50 urteak merezi duen bezala ospatzeko. Aldez aurretik izena eman behar da Umerez tabernan, 20 euro jarrita.


- Arrasate-Oñati probarako laguntzaile bila dabilta

Laixan elkarteak jendea behar du maiatzaren 6an jokatu den Arrasate-Oñati korrikaprobaren lan egiteko. Bidegurutze eta bihurtugetan bidea adierazten eta zirkulazioa zaintzen laguntzeko gertu dagoen jendea behar dute. Argibideak 943 71 63 11 telefono zenbakian.

- Uztaileko udaleku irekietarako begiraleak

Uztaileko udaleku irekietarako begirale deialdia egin du Udalak. Maiatzaren 15era arte eman daiteke izena, eta curriculum, argazkia eta NAREN fotokopia eraman behar dira. Argibideetarako, deitu Jaioneri 689 68 18 85 telefonora, 16:00-20:00 ordutegian.

Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK
ESTRADOS
www.consultoria.estrados.com

ANTZINAKO ALTZARIAK
ZUMADIA
www.zumadia.com

AKADEMIAK
BASTIDA
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK
BZ-SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

MARRUBI
www.marrubi.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

AROTZTEGIAK
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi

AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate

ASEGURUAK
BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak

WINTERTHUR
www.winterthur.es

AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA
AUTOS ARETXA S.L.
www.autosaretxa.com

AUTOS RIBEGOLA –BMW-
www.autos-ribegola.com

GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi

AUTO-KONTZESIONARIOAK
4QUATTRO 4
www.goiena.net/blogak/4quattro4

BIDAIA AGENTZIAK
BARCELO
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA
OSCAR VITORIA
www.goiena.net/blogak/vitoria

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi

ELEKTRIZITATE MATERIALAK
SETALDE
www.setalde.com

ERAIKUNTZAK
CONSTRULAN
www.construlansl.com

ERROTULOAK
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando

ESTETIKA ZENTROAK
ANGELA
www.angelaestetika.net

GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder
LILURA
www.lilura.com

MAIER
www.goiena.net/blogak/richimaier

GARBIKETAK
HEMEN
www.hemen-garbitetak.com

GIMNASIOAK
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport

HAUR PARKEAK
OKIPARK S.L.
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEA
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIKAK
CIM-OÑATI BAI & BY
www.cim-idiomas.com

HOTELAK
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

ILE APAINDEGIAK
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier

INFORMATIKA
DCA COMPANY
www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOAK
HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK
ANBOTO
www.inmoarrasate.com

ARRIETA & SAN MIGUEL
www.arrietasanmiguel.com

KOROSTI
www.inmikorosti-com

UDALATX
www.goiena.net/blogak/udalatx

JANARIAK
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu

JANTZI DENDAK
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK
BASTER ALDE
www.baster-alde.com

DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental

DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena

MAULANDA
www.goiena.net/blogak/maulanda

LANTEGI ETA TAILERRAK
TALLERES CARPinsa S.L.
www.carpinsa.com

LEIHOAK
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik

EGO
www.goiena.net/blogak/ego

LORADENDAK
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore

MAYTE
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK
KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OPARIAK
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multiopticas

OSTALARITZA
GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia

PUBLIZITATE AGENTZIAK
ADOX
www.adoxnet.com

SKATE&SNOW
LAINO
www.laino.info

TABERNAK
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea

ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

TATUAJEAK
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesha

TAXIAK
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK
GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA
www.aizue.com

ZERBITZU DIGITALAK
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILEA
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:
www.goiena.net/merkatua

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Auto-ilara handiak Arrasaterako bidean

Txistu bat baino gehiago jaso dugu asteon, Kanpanzartik Arrasatera sartzeko Muxibarko sarrera itxita dagoenez, Epeleko biribilgunean egiten diren auto-ilarak direla eta. "Egunero joaten naiz Oñatitik Arrasatera, eta ederra txolopotea. Martitzenean ordubete pasa egin nuen. San Prudentzioko zaldi zuriak ere ezagutu egingo nau hemendik aurrera. Noizbehinka Bergarara joan eta autobidea ere hartu dut, baina ez da askorik aurreratzen. Okerrena da arazo honek ez duela konponbiderik. Lotsagarria da!". Beste irakurle batek honakoa bidali digu: "Nik 45 minutu luze behar izan nituen martitzenean Osiñurdi- netik Debagoieneko Ospitalera iristeko. Ia-ia ordubete behar izana kasu puntuala dela? Ados, baina berdin erretzen dit egunero 12 kilometro egiteko ordu erditik hiru ordu laurdenera behar izana ere".

• Zorionak, Ointzeko mutilei!

Arrasateko saskibaloit taldeko mutilak zoriondu nahi ditu irakurle batek. "Denboraldi bikaina egin dute eta merezitako saria jaso dute azkenean. Garaipena behar zuten eta bikain errematatu zuten eguaztenean Igoera fasea. Orain, seiko finalean dira. Zorionak, Ointxe! Baietz EBArA!".

• Aparkaleku berria Oñatiko Olakua auzoan

Bukatu berri dituzte Olakua auzoko jolasparkeko lanak, eta txaloak bidali dizkigu irakurle batek. "Aparkaleku berria dugu Oñatiko Olakua auzoan; 24 autorentako aparkalekua, hain zuzen, eta erabiltzeko prest. Jolasparkeko lanak ere bukatu dituzte eta hondakinendako edukiontzia bere lekuan daude berriro. Albiste ona; bai, horixe!".

Sarean harrapatuta

Emakumeenganako jazarpen sexuala lanean

Joan den astean argitaratu zen ikerketa baten arabera, Espainiako Estatuko emakumezko langileen %15ek salatu dute lanean jazarpen sexuala. Eta EA Eren kasuan %6,5 da kopurua. Gai horren

gaineko eztabaida jarri dute aste honetan *Goiena.net* webgunean: zer iritzi duzu horren gainean? Zuk horrelakorik bizi izan duzu inoiz? Hemen dituzue eztabaidan jasotako erantzun batzuk.

HITZ MATXISTAK ENTZUN BEHAR IZATEN DITUGU

Jazarpena ez dakit, baina matxismo handia jasan behar izaten dugu askok lanean. Batez ere, orain arte gizonenak bakarrik izan diren lanetan aritzen garenok. Askotan entzuten ditugu umiliatzeko moduko hitzak: hori emakume batek ezin du egin, titi handiegiak dituzu horretarako... Ipurdian ukitzea ere zilegi da askorendako, eskaileran igota zaudelako bakarrik eta emakumea zarelako.

Lorea / www.goiena.net

OKERRENAK GAZTEAK IZATEN DIRA

Lorea, ni ere bat nator zurekin. Garai hauetan oraindik ere matxista ugari daude. Gainera okerrenak 30 inguruko gazteak dira. Nik ez dut nire inguruan sexu jazarpenik igarri. Hala ere, presio psikologiko asko bai, lanagatik, edukazio falta dutenengandik... Ez dakit zer den okerragoa.

Miren / www.goiena.net

BATZUK HANDITU EGINDUTE KONTUA

Niri ez zait iruditzen hainbestekoa izango denik. Nik nire inguruan behintzat horrelakorik ez dut ikusi. Ipurdian atximur bat egitea jazarpen sexuala dela uste

duzue? Nik uste dut askok handitu egiten dutela kontu hau dena.
Rob / www.goiena.net

EGUNERO ATXIMURKA EGITEA DA JAZARPENA

Eta egunero egiten badiozu atximurka? Eta esaten badizu ez egiteko eta hala ere egiten badiozu? Behin eta berriz? Hori ez da jazarpena? Behin egitearren ez nuke esango jazarpena denik, baina jazarpena da behin eta berriz egitea eta hori leku askotan ikusten dut nik. Emakumea izateagatik

bakarrik. Ala, egingo zenioke atximurka gizonazko bati ipurdian?

Amaia K. / www.goiena.net

DEPRESIOAK ERAGIN DITZAKE JAZARPENAK

Nik ere ez dut sexu jazarpenik izan sekula. Dena dela, egia da nagusien presio psikologikoak askotan okerragoak direla. Nire kasuan behintzat hala da. Umiliatzeko bide asko daude, ez duzu zertan zakar hitz egin behar edota hitz itsusiak erabili. Nahikoa da ironia erabiltzea eta zure lanean guztien aurrean nabarmen uztea. Beraz, nik uste dut jazarpen psikologikoa okerragoa izan daitekeela. Gainera, horrek depresioak edota autoestimuan kalteak eragin ditzake.

Jon / www.goiena.net


LANEAN ERE BOTERE MAILAK DAUDE

Ez dut ikusi eta ez diot inori entzun. Baina sinisten ditut datuak. Lanean ere botere maila desberdinak azaltzen dira eta gizonazko batzuek emakumeen gainean duten boterea erakusteko aprobetxatzen dute. Beste gauza bat da jazarpen psikologikoa, uste dut sexu jazarpena eta jazarpen psikologikoa arazo berberaren bi aurpegi direla.

Martxelo / www.goiena.net

www.goiena.net

Nabaritu duzu lanean emakumeenganako jazarpen sexualik?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Lan istripuen kopurua nabarmena da. Zer egin daiteke arazoari irtenbidea emateko?



IÑAKI SAN JOSE | ZERBITZU BURUA BERGARAN

Lanean hasi aurretik ondo aztertu behar dira lanak suposatzen dituen arriskuak. Ikerketa horrek finkatuko ditu hartu beharreko segurtasun neurriak zeintzuk diren. Azkenik, arrisku horiei aurre egiteko baliabide egokiak eman behar zaizkie langileei. Jantziak zein gomendioak.



JON GARATE | LAB SINDIKATUA

123 langile hil dira aurten lan istripuetan. Arazoari irtenbidea emateko sindikatuek, enpresaburuek zein administrazioak indar berekin jokatu behar dugu. Administrazioaren jarrera lotsagarria da, eta enpresaburuek, inbertsio gisa baino gehiago, gastu moduan ikusten dute osasun laborala.



ANA MARTINEZ | IKERLAN KOOP. ELK.

Eraikuntzako makinaren simulagailuak sortzen ari gara, langileen formazioa garrantzitsua dela uste dugulako. Beharginek argi eduki behar dute makina hauekin zein arrisku sor daitezkeen. Arriskuak zeintzuk diren ezagutzea eta horietaz kontzientziatzea ezinbestekoa dela uste dugu.



EGOITZ ITURBE | ELA SINDIKATUA

Erantzukizuna hartu eta bete egin behar da. Enpresaburuek dute erantzukizun handiena arazo horretan, eta, ondoren, administrazioak. Ez dute legea betetzen. Ez dago ez kontzientziarik ez borondaterik ere. Datorren urtean auskalo datuak zeintzuk izango diren!

Egunkarietako harribitziak

ITZALALDI NUKLEARRA ZURITAN

Atzo laga zion ekoizteari Estatuan eraiki zuten lehen zentral nuklearrak. 38 urtez jardun du eta zikloa bukatu baino bi urte lehenago itxi dute. 2015ean bukatuko dute zentrala desegiteko lanak eta 170 milioi kostako da hori. Sortuko diren 6.700 tona hondakin erradioaktibo biltegi batera eroango dituzte.

'Noticias de Gipuzkoa'
2006-04-30



BIZIRIK GABEKO HAZIAK

Euskal Herriko nekazari eta abeltzainak kezkatuta daude lehengai transgenikoek haien jardunean sor ditzaketen kalteekin. Oraingoz, mehatxu horri aurre egitea lortu dute. Mundu zabaleko errealitatea beste bat da, ordea: nahasia. Behiak azkarrago hazteko txertatzen zen hormona bat zela medio hasi zen lehen aldiz EHNE transgenikoen azua aztertzen. 90eko hamarkadaren hasiera zen. Bost urte geroago lehengai

transgenikoak laborantzian beren lekua egiten hasi ziren, eta harrezkero, jarraipen zuzena egiten ari zaizkio gaiari. Greenpeacek transgenikoek eragindako kalteak neurtzeko erregistro bat egin zuen iaz. Erregistro horretan 113 kalte kasu detektatu dituzte, 88 kutsadura kasu, legez kanpoko 17 landaketa eta nekazaritzaren gaineko 8 eragin kaltegarri.

'Berria'
2006-04-30



Tira, tira...



Zakilixut 'Berria' | 2006-IV-30

Egunkarietan irakurri dugu

'El Mundo'

BEHAR DUGUN ELEBITASUNA

Logikoena izango litzateke katalana edo galizieraren oinarrizko ezagutza izan eta gero hizkuntza nagusia gaztelera izatea eta bigarren hizkuntza, ingelesa. (...) Zer komeni da gehiago: elebiduna izatea gaztelera eta ingelesarekin, edo gaizki berba egitea gaztelera baina ondo galiziera, katalana edo euskara? *El Mundo*-k ez du zalantzarik.

Editoriala
2006-04-30

'Berria'

PIRAMIDEA ALA SAREA

Globalizazio neoliberalak Estatu bera bote-retsuen multzo txiki baten zerbitzura jarri du, zerbitzu publikoak ere pribatizatuz eta negozio-iturri bihurtuz. Horren aurka, Estatu berria arau demokratiko berriz antolatzeara proposatzen dute, gizarte mugimenduen esperientziako antolaketa eredu indarrean jarritz. Atenasetik berriro demokrazia.

Karmelo Landa
2006-04-30

'El Diario Vasco'

ABIADURA HANDIA DONOSTIARAINO

Inkoherentzia da pentsatzea *Euskal Y*-a Bilbo eta Gasteizko erdigunera irits daitekeela eta ez Donostiakora. Hori argumenta ezinezko inkoherentzia litzateke, kontuan hartzen badugu, gainera, Euskadi Europarekin konektatzeko *Euskal Y*-ak daukan birtualtasuna dela, hain justu, Gipuzkoa gune estrategiko egiten duena proiektu horretan.

Editoriala
2006-04-30

'Gara'

NAFARROAK ERABAKITZEN DU

Nafarroaren Egunaren aurretik argi geratu den bezala, Leiarren lanak aurrera jarraitu behar du eraso garatzailea, behingoz, alde batera utzi arte. Baina horren guztia gainera gaur jaia egongo da Baigorri, eta topa egingo dute autobide transpirinarrari dagokionez lortu duten garai-penarengatik.

Editoriala
2006-04-30

Zorroztalea



Koofiziala, propioa, exkluyentea

1987ko Konstituzioan onartutako koofizialtasunetik bere inposaketara tarre handia dago, Karta Magnoak nahikorik mugatzen ez duena eta, orain, Kataluniako Estatutu berriarekin, gaingiditu dena; izan ere, hizkuntzari dagokionez "patena bezain garbi" geratu da "nacionalismo excluyente"-aren intereserako. 143. artikulua, era gaiztoan "Hizkuntza propioa" izenburuduna (gaztelania ere propioa izango ez bailitzan) Kongresuko bahetik pasa da.

Blanca Torquemada
'ABC digital' | 2006-04-30

Jabier Arantzeta

Askorik ez da behar nagusiki hizkuntza koofiziala (gaztelania) besterik erabiltzen ez duten espainiar "ez-nazionalisten", are gutxiago "excluyente"-en iritzia jakiteko. Baina goazen zatika, geuk ere zer edo zer esateko daukagu eta.

Hasteko, "koofizial" hitza. Ziur naiz Torquemada andreak nik baino hobeto egingo duela gaztelera, baina nik ezagutzen dudanez neurrian "ko-" aurrizkiak era berean esan nahi du; hau da, espainiera euskara bezain ofiziala da, edo kooperatiba kide bat beste kooperatiba kide bat bezain operatiboa da. Beraz, bere jardunaren hasieran Euskadiko Epaitegi Goreneko lehendakari berriak esan zuenean epaile batek ez zeukala hizkuntza koofiziala zertan ezagutu, uler zitekeen espainiera ezagutu beharrik ez zeukala.

Jarraitzeko "propioa". Hau da: "geurea eta eurena". Aspaldi esan zuten Mitxelena handiak gaztelania ere hemengoa zela, baina orain arte ez-nazionalista bati egundo ere ez diot entzun euskara berea denik. Agian, espainiar ez-nazionalista horiek enteratzen direnean euskara, katalanera eta gailegoa Espainiako hizkuntza "propioak" direla, arazoa konpontzen hasiko da, baina, egia esan, nik ez ditut horretarako ikusten, asko jota euren buruan besterik existitzen ez den "valenciano"-a onartuko dute espainiarizat.

Eta bukatzeko "excluyente". Nik dakidenez hemen inor baztertzen duen bakarra berea besterik ezagutzen ez duena da; beraz, berba zatar hori inori jartzekotan euren buruari jarri behar diote; izan ere, inorena ez ezagutzeaz gain, behin eta berriro garbi utzi dute ez daukatela bestea zertan ezagutu.

"Nik ezagutzen dudanez neurrian 'ko-' aurrizkiak era berean esan nahi du; hau da, espainiera euskara bezain ofiziala dela"

"Inorena ez ezagutzeaz gain, argi eta garbi utzi dute ez daukatela bestea zertan ezagutu"

KIROLA

- Saskibaloian, Eskoriatzako neskek 56-65 galdu zuten etxean zapatuan | 15
- 25 lagunek hartu dute parte AEDren '3 haundixek 3 egunetan' martxan | 18

Ford Mugarrik Urdaneta hartuko du gaur, Iturripe kiroldogian, 12:00etan | 14

PREFERENTE MAILA

ORDIZIA

3-0

ALOÑA MENDI

Ordizia | De Marcos, Alvarez, Aramendi, Olaberria, Ganuza, Mendez (Luis, 79. min.), Irastorza (Alvanado, 81. min.), Iraola, Lekuona, Aierbe, Odriozola.

Aloña Mendi | Elgarresta, Olalde, Astola, Barrena, Idigoras, Igartua, Zubia, Arregi I. (Aramendi, 65. min.), Arregi II. (Losada, 65. min.), Lopez, Bazan (Astigarraga, 65. min.) (Martin, 87. min.).

Golak: | 1-0 Aierbe (55. min.), 2-0 Irastorza (72. min.), 3-0 Irastorza (78. min.).

Epaillea | Ez zuen aparteko lanik izan. Bi txartel hori atera zizkion Ordizia taldeari eta Aloñari, berriz, lau.

Bestelakoak | Oñatiar asko hurbildu ziren Ordiziara partidua ikustera. Eguraldi ona egin zuen.

Bikain

Ordiziaren jarrera

Sailkapenari dagokionez jokoan ezer ez izan arren, Ordizia partidua irabaztera atera zen zapatuan. Etzeko taldeak gogor jokatu zuen garaipena eskuratzeko.

Kaskar

Aloñaren aldaketa

Aurreko astean Azkoagainen ikusi genuen taldea eta zapatuan Ordizian jardun zuenaren artean alde handia dago. Nola liteke horrelako aldea egotea, ia jokalaririk berberekin jokaturik?

Esandakoak

“Lehenengo zatian aukera berak izan ditugu bi taldeok. Azkenean, baina, gola sartzen azkarrena izan denak irabazi du partidua”.

“Fede txikia erakutsi dugu aurrera egiteko orduan. Ez zuen ematen igoera txartela jokoan geneukan taldea ginenik”.

AITOR ORUETA | ALOÑAKO ENTRENATZAILEA



Lehenengo zatian Iñigo Arregik gola egiteko aukera polita izan zuen, baina baloiak zutoina jo zuen.

FUTBOLA | ALOÑARI SUFRITZEA EGOKITU ZITZAION

Aloñak lasaitasuna lortzeko aukera paregabera galdu du

Aloña ligako azken txanpan sartu da; liga irabaztea bere esku duen arren, zapatuan baino joko hobea egin beharko du talde oñatiarrak

Arantzazu Ezkibel

Aloñak liga eskuratzeko bidean aukera paregabera galdu zuen zapatuan Ordiziaren aurka. Talde oñatiarrak ez zuen jakin izan Ordizia mendean hartzen eta azkenean esku-hutsik etorri behar izan zuen Oruetaren taldeak.

Partidua nahiko berdindua izan zen, batez ere lehenengo zatian. Aloña ondo kokaturik zela iratu zen. Oñatiko taldeak atzealdean aldaketa batzuk egin

zituena: Xabi Elgarrestaren ordez Henry zela iratu zuen Oruetak. Hala, Iban Astola atzetik zelai erdira pasa zen, Elgarrestak utzitako zuloa betetzera.

GOLA EGITEKO BI AUKERA

Lehenengo zatian, Aloñak markagailuan aurre hartzeko aukerak izan zituen. Jokaldi batean, Iñigo Arregik baloia zutoinera bota zuen. Beste jokaldi batean, berriz, hegaletik egindako erdiraketa batean, Roberto Idigorasek baloia buruz ukitu baina

jokaldia ezerezean geratu zen. Ordiziak ere izan zituen aukerak gola egiteko. Hala ere, atsedenera berdinketarekin iritsi ziren.

Bigarren zatian gauzak gaizki jarri ziren Aloñarentzat. 10.

Iñigo Arregik eta Robertok gola egiteko aukera onak izan zituzten

Bigarren zatian, Ordiziak minutu batean bi gol egin zizkion Aloñari, eta partidua erabaki

minutuan Ordiziak lehenengo gola egitea lortu zuen. “Lehenengo golera arte, partidua orekatua izan da. Behin gola egin digutenean, baina, behera etorri gara”, esan zigun Aloñako entrenatzaileak.

Beste bi golak ere jarraian etorri ziren. Bost minutuan Ordiziak bi gol egin zituen, eta markagailua 3-0 utzi.

“Erasoan gaizki aritu gara, ez dugu erakutsi egiten dakigun guztia. Liga jokoan izan arren, ez dugu irabazteko amorrurik erakutsi. Ordiziak, ordea, jokoan ezer ez izan arren, dena eman du”, esan zigun Aitorrek.

Real Unioneke irabazi ostean, sailkapenean bi puntura jarri da talde irundarra. Datorrena astean, Mutriku hartuko du etxean Aloña Mendik.

ARTXIBOA

PREFERENTE MAILA



ARTXIBOA

Argazkian, Iker Orueta baloia oinetan duela; Igor Arenatza atzerago, jokoa jarraitzen.

UDAK ere galdu egin zuen Hondarribiaren aurka

HONDARRIBIA

1-0

UDA

Hondarribia | Ruiz, Sanchez, Santamaria, Amezketa, Nogueira, Emazabal, Gontzalez (Amundarain, 82. min.), Oartzun (Retegi, 58. min.), Muñoz, Elizalde eta Berasalutze (Amiano, 87. min.).

UDA | Eriz, Erostarbe (Sanchez, 61. min.), Gonzalez, Arenatza, Iturbe, Arrieta (Azkue, 61. min.), Orueta, Igartua, Arriaga, Gartzia (Armendaritz, 59. min.) eta Espinosa (Rodriguez, 68. min.).

Golak: 1-0, Gonzalez (15. min.).

Epailea: Martinez jauna.

Mireia Bikuña

Preferente mailan sailkapeneko aurreneko lekutan dauden talde guztiek -Aloña, Real Union eta Ordizia- galdu egin dute Hondartza futbol zelaian. UDAk ere ez zuen zorterik izan zapatuko partiduan. Hondarribiaren gol bakar batek erabaki zuen lehia.

Etxeko taldea izan zen, gainera, lehenengo zatian baloia- ren jabetza izan zuena. Jokoa ere Hondarribiak menderatu zuen.

Hala, lehen ordu laurdena bete orduko, etxeko taldeak aurre hartu zuen markagailuan. Gontzalezek errebote bat aprobetxatu zuen gola egiteko. Partidua alde jarri zuten hondarribiarrek

eta bigarren gola egiteko aukerak ere izan zituzten. UDAk ere abagune bat edo beste izan zuen atsedenen aurretik.

BERDINKETA LORTZEKO GOL AUKERAK

Bigarren zatian, aldiz, Felix Recio- ren mutilak izan ziren partiduari erritmoa jarri ziotenak. Baloia- ren kontrola hartuz berdinketa- ren bila atera ziren eta gol aukera oso garbiak sortu zituzten.

Arriagak, preferente mailako golegile onena dela erakutsita (24 gol egin ditu orain arte), berdinketa oinetan izan zuen, baina zapatuan ez zuen asmatu. Gainera, UDAk izandako aukeren aurrean, Hondarribiko atezainak geldiketa oso onak egin zituen.

Lehen gola egin arren, galdu egin zuen Mondrak

BERIO
4-1
MONDRA

Mireia Bikuña

Atsedenaldiaren aurretik Muruak egindako golari esker aurreratu arren, arrasatearrek ez zuten garaipenik lortu. Aukerak izan zituzten lehenengo zatian

markagailuan alde handiagoa jartzeko, baina futboleko gol aukerak aprobetxatzen ez direnean, partiduak galdu egiten dira. Mondrak lehenengo zatian hobeto jokatu zuen, batez ere 20. minutik aurrera.

BERIO HOBETO BIGARREN ZATIAN

Atsedenaldiaren ondoren arrasatearrek lo atera ziren zelaira eta Beriok hartu zuen partidua- ren kontrola. Mondrako jokalariek akatsak aprobetxatuz markagai- luari buelta eman zion Beriok.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK		SAILKAPENA						
		Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
Berio-Mondra	4-1							
Irun 1902-Allerru	2-0							
Anaitasuna-Zestoa	0-2							
Hondarribia-UDA	1-0							
Trintxerpe-Touring	0-2							
Hernani-Pasaia	0-2							
Zarautz-Orioko	4-1							
Ordizia-Aloña Mendi	3-0							
Mutriku-Idiazabal	0-1							
Beti Gazte-Real Union	0-1							
HURRENGOAK								
Real Union-Berio								
Mondra-Irun 1902								
Allerru-Anaitasuna								
Zestoa-Hondarribia								
UDA-Trintxerpe								
Touring-Hernani								
Pasaia-Zarautz								
Orioko-Ordizia								
Aloña Mendi-Mutriku								
Beti Gazte-Idiazabal								

Bigarren erregionala



JOSETXO ARANTZABAL

BERGARAK BIGARREN POSTUA ESKURATU DU 5-1 IRABAZITA


Bergarak partidu borobila egin zuen zapatuan Agorrosinen. Gainera, Zumaiakok Urolaren kontra galdu egin zuenez, Bergara bigarren postuan jarri da. Lehenengo zatian Imanolek aurreratu zuen Bergara markagailuan. Eta bigarrenean, Iker, Eneko, Eloy eta Imanol bera izan ziren golegileak. Josu Zubiak esan digunez, gaurko aurreikusita zeuden Urolaren aurkako bost minutuak, azkenean, ez dira jokatu.

HAURRENTZAKO MASAJE IKASTAROA

Urtebete bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua

- LASAITZEKO
- HOBETO LO EGITEKO
- KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO
- UMEAREKIN KOMUNIKAZIO EFEKTIBOA SENDOTZEKO
- IMMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO

ANTOLATZAILEA
MUGI, Psikomotritate Prebentzio eta Laguntza Zentroa
TOKIA
Araba etorbidea 3,
2-3. atea
EGUNAK
Maiatzak 17, 24, 31 eta
ekainak 7 eta 14.
ORDUA
10:30etik 12:30era
INFORMAZIOA
MUGI ZENTROAN
943 77 08 05



• GAZTE MAILA, KOPA TXAPELKETA

Verkol Aloñak ez zuen arazorik izan irabazteko

Kopa txapelketa primeran hasi dute oñatiarrek: jokaturako bi partidua irabazi dituzte

VERKOL ALOÑA

29-10

UROLA

Verkol Aloña | Maider, Arantzazu (3), Ana, Ixone (10), Maria, Maialen (5), Ariane, Rebeka (3), Maider (1), Itziar (1), Mireia (5) eta Itxaso.

Urola | Carolina (2), M^o Carmen (8), Cinthia, Miriam, Eneritz, Sandra, Leire, Sara eta Jone.

Golak: Atsedenean, 13-4.



MIREIA BIKUÑA

Mireia Mugartzak lan polita egin zuen, bereziki bigarren zatian.

Mireia Bikuña

Denboraldi bikaina egiten ari dira Verkol Aloñako gazte mailako neskek. Federazio Txapelketako finalean Ereintzari irabazi ondoren Udaberri Txapelketako finalerako txartela lortu zuten. Finala Zarautzen jokatu zen baina ez zuten garaipenik lortu. Eta Kopa Txapelketan,

orain arte jokaturako bi partiduetan talde sendoa dutela erakutsi dute.

PARTIDU ERRAZA

Manu Garmendiaren neskek ez zuten inolako arazorik izan Urola mendean hartzeko. Hasierako minutuetan huts batzuk egin arren -baloi batzuk galdu zituzten eta erasoko jokaldi batzuetan,

urratsak egin-, Aloñako neskek erraz jarri ziren aurretik markagailuan. Ixone Lizarrak gol asko egin zituen ezker hegaletik.

Urola taldeko jokalariek ez zieten zailtasunik jarri oñatiarrei erasoan. Lehenengo zatian lau gol bakarrik egin zituen Zumarragako taldeak. Atsedenean 13-4 erakusten zuen markagailuak.

PENALTI ASKO

Atsedenean ondoren egoera ez zen batere aldatu. Verkol Aloñak markagailuan zuen aldea handitzea lortu zuen. Penalti jaurtiketa asko izan zituen bere alde etxeko taldeak; eta ongi aprobeztatu zituen.

Verkol Aloñako jokalariek golak posizio guztietatik egin zituzten zapatuko partiduan.

• GIPIZKOAKO TXAP.

Arrasatearrek Ormaiztegiko defentsarekin egin zuten topo

ORMAIZTEGI

31-22

FORD MUGARRI

Mireia Bikuña

Lehenengo zati parekatua jokatu ondotik, Ford Mugarrik ezin izan zuen Ormaiztegiko bigarren zatian egindako defentsa gainditu. Hain zuzen, horixe izan zen partidua gako.

LEHENENGO ZATIAN ONDO ARRASATEARRAK

Partidu borobila jokatu zuten arrasatearrek lehenengo zatian. Erasoan aukerak egin zituzten eta defentsan Ormaiztegiko jokalarien jokoa geratzeko gauza izan ziren.

Hala, atsedenean markagailua parekatuta zegoen: 17-16, etxeko taldearen alde.

Bigarren zatian, baina, Ormaiztegiko defentsa asko gogortu zuen, eta Ford Mugarriko jokalariek saiatu arren, ez zuten aukerarik izan markagailuko berdintasunari eusteko. Hala, Ormaiztegi aldea handitzen joan zen poliki-poliki.

Bi taldeetako jokalarien adin ezberdintasuna ere asko nabaritu zen minutu horietan; izan ere, Arrasateko jokalariek gazteagoak dira. Horrenbestez, bukaeran etxeko taldea nagusi izan zen markagailuan.

FORD MUGARRI-URDANETA, IGOERA FASEAN

Amaitzeko, gogoratu beharra dago Ford Mugarrik gaur jokatu duela Iturripen, 12:00etan, Urdanetaren aurka. Igoera faseko bigarren itzulari hasiera ematen dion partidua da gaurkoa. Eta norgehiagoka irabaziz gero, Arandoren taldeak Urdanetarekin duen aldea handitu egingo du.

• GAZTEAK MUTILAK, KOPA TXAPELKETA

Bergarak huts asko egin zituen

BERGARA

19-25

AMENABAR ZARAUTZ

Bergara | Etxezarreta, Egaña, Sevilla (3), Bikuña, Polonle (8), Artola (1), Etxeberriartegun (1), Mengual, Orgoz (2), Sanchez (1), Iturriagaitia, Urbina (3), Unamuno.

Amenabar Zarautz | Iturralde (4), Peñagarikano (1), Gontzalez, Berstain (7), Izeita (2), Santos (4), Vidarar (5), Perez (2).

Golak: 2-7, 4-9, 6-10, 10-13, 12-17, 14-19, 16-22, 18-24, 19-25.

Arantzazu Ezkibel

Bergarak partidu txarra jokatu zuen Zarautzen aurka. Etxeko taldeak hasiera txarra izan zuen: lehenengo hamar minutuetan 2-7ko partziala izan zuen kontra.

EZIN AURRE HARTU

Atsedenera 10-14 atzetik iritsi ziren mahoneroak. Bigarren zatian ahaleginu egin ziren etxekoak lehia berdintzen, baina ezin izan zuten ezer egin.

Esan bezala, Kopa Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zuten zapatuan bergarrek. Aurreko astean, Oñatin,



JOSETXO ARANTZABAL

Bergarak huts asko egin zituen defentsan.

22-30 nagusitu ziren mahoneroak. Eta sailkapeneko lehenengo postua utzi behar izan dute. Bergarak jokaturako bi

partiduetatik bat irabazi du. Hala, datorren astean Leizaren aurka neurtuko ditu indarrak Bergarako taldeak.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

KOPA. 1. ETA 2. TERRITORIALA

Ormaiztegi-Arrasate Eskubaloia 21-27

GAZTE MUTILAK. KOPA TXAPELKETA

Ereintza-Aloña Mendi 36-25

Bergara-Aldaketa 16 Zarautz 19-25

GAZTE NESKAK. KOPA TXAPELKETA

Verkol Aloña-Urola 29-10

Bergara-Arrate 15-27

KADETE MUTILAK. KOPA TXAPELKETA

Aloña Mendi atsedena

KADETE NESKAK. KOPA TXAPELKETA

Verkol Aloña-Hondarribia 38-3

• BIGARREN MAILA, NESKAK

Etxeko azken partiduan esku-hutsik

Eskoriatzarrek ezin izan zieten zaleei garaipena eskaini etxeko azken partiduan; hori bai, joko ona egin zuten zapatuan Eskoriatzan

ESKORIATZA

56-65

UPV ATLETICO

Eskoriatza | Serrano (3), Laborda (5), Gomez, Caceres (6), Murillo, Usabiaga (14), Soriano (4), Exposito (11), Etxeberria (8), Agirrezabalaga eta Alartzia (8).

UPV Atletico | Bengoetxea (16), Llopis (8), Zaldua (15), Perez (4), Goñi, Gartzia, Bengoetxea (5), Callado, Calvo, Oran eta Estormes (2).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 19-14. Bigarren laurdena 34-36. Hirugarren laurdena 48-52. Laugarren laurdena 56-65.

Arantzazu Ezkibel

Eskoriatzak 56-65 galdu zuen zapatuan etxean jokatuako ligako azken partiduan. Partidua nahiko orekatua izan zen. Lehenengo laurdenean, etxekoak aurreratu ziren markagailuan. Hala ere, alde horri eusten ez zuten jakin eta azkenean esku-hutsik geratu ziren.

Horren harira, partzialak hauexek izan ziren: 19-14, 15-22, 14-16 eta 8-13.

DEFENTSAN ONDO

Eskoriatzak partidu ona egin zuen. Defentsan sendo aritu ziren Javi Corbalen neskek, aurkariari taula azpian zulorik utzi gabe. Erasoko jokoan, ordea, gainbehera egin zuten. Hasiera polita eta gogorra izan zuten, baina amaieran ahul ibili ziren, eta saskiratze gutxi egin.

Gainbehera hori bigarren laurdenean nabaritu zen gehienbat. Eskoriatzak lehenengo laurdenean amaieran bost puntuko alde izan arren, bigarrena bi puntu atzetik amaitu zuen. Minutu gutxian 0-7ko partziala jaso zuten Eskoriatzako neskek.

PARTIDU BAT GERATZEN DA LIGA AMAITZEKO

Esan bezala, Eskoriatzak etxeko azken partidua jokatu zuen zapatuan. Denboraldia datorren astean amaituko dute Eskoriatzako neskek, Cobafen aurka. Lehenengo itzulian, etxean, Eskoriatza 54-51 nagusitu



JOSETXO ARANTZABAL

Eskoriatzako taldeak gainbehera egin zuen zapatuan.

zitzaion Kalagorriko (Calahorra) taldeari. Beraz, datorren astean garaipena eskuratzeko aukera asko izango ditu ibarreko taldeak.

Aurtengo denboraldia nahiko zaila izan da Javi Corbalen taldearentzat. Jokatuak 29 partiduetatik hiru besterik ez du irabazi: Hermosilla (53-56), Cobaf (54-51) eta Fonsecaren aurka (51-47). Sailkapenean azkenak dira

eskoriatzarrak, baina datorren astean irabazten badute, bi postu aurreratzeko aukera izango du talde eskoriatzarrak.

Javi itxaropentsu dago datorren asteari begira. Hala ere, partidu zaila izango dela esan digu: "Kalagorriko taldeak gogor jokatzen du taula azpian. Jokaldi horietan min handia egin ahal digute. Guk gure aukerak aprobetxatu besterik ez dugu".

• SENIOR MAILA, GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Candyk ez zuen aurkaririk izan

CANDY BERGARA

113-42

OIARSO

Candy Bergara | Urbina (17), Morais (11), Arteaga (7), Beiztegi (10), Ugarte (18), Alonso (4), Iñarra (22), Aliaga eta Erafia (24).

Oiarso | Etoho, Mateos (10), Galiache, Bernardo (2), Amores (2), Redondo, Martin (4), Arteaga (10), Mayoral (7), Gonzalez (7), Ariana eta Perez.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 33-10. Bigarren laurdena 54-36. Hirugarren laurdena 80-32. Laugarren laurdena 113-42.

Mireia Bikuña

Emaitza ikusi besterik ez dago zapatuko partidua zer eman zuen jakiteko. Candy Bergarak mendean hartu zuen Oiarso taldea hasieratik.

LEHENENGO LAURDENEAN ERABAKI ZEN LEHIA

Indar handiarekin hasi zuen partidua Candy Bergarak. Eta lehia erabakita usteko asmoz, jokaldi azkarren bitartez saskiratze errazak lortu zituzten. Errebotean ere ondo aritu ziren bergararrak. Oiarso, aldiz, talde ahula dela erakutsi zuen.



JOSETXO ARANTZABAL

Urbina (ezkerrean) eta Ugartek puntu asko egin zituzten.

Lehenengo laurdena 33-10 amaitu ondoren, gainontzeko minutuetan alde handitzen joan zen talde mahoneroa. Izan ere,

Oiarso sei puntu bakarrik egin zituen hirugarren laurdenean eta hamar, laugarrenean. Ez zieten zailtasunik jarri bergarrei.

• SENIOR MUTILAK

Aloñak liga galduz amaitu du (67-45)

A.G.

Gorka Judezen taldeak 67-45 galdu zuen ligako azken partidua Ogiberriren aurka.

Ogiberri, hasiera batean, Aloña baino talde ahulagoa zen. Baina kantxan gogor aritu ziren donostiarrak eta erraz nagusitu ziren. Aloñak erasoan arazoak izan zituen eta 45 tanto egitea besterik ez zuen lortu.

Aloñak Mendik 7. postuan amaitu du liga, 17 punturekin. Datuei dagokienez, sei partidu irabazi ditu talde oñatiarrak eta galdu, ordea, bost. Ligan jokatuak 11 partiduetan 633 tanto jaso dituzte oñatiarrek, eta 634 egin.

• SENIOR NESKAK

Partidu txarra jokatu zuen Aloñak zapatuan

A.G.

Aloñak oso gaizki jokatu zuen zapatuan Donostian. Hori dela eta, Oñatiko taldeak 82-15 galdu zuen.

Oñatiarrak jende gutxirekin joan ziren Donostiara eta nabaritu egin zen kantxan. Are gehiago, ez zuen lan ona egin ez defentsan eta ez erasoan Iker Zabaletaren taldeak.

Talde donostiarra gogor aritu zen; izan ere *play off*-a jokatzeke lehian ari dira. Aloñak datorren astean bukatuko du liga etxekoen aurrean. Easo Loyola izango dute aurkari oñatiarrek.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

BIGARREN MAILAKO NESKAK

Eskoriatza-UPV Atletico 56-65

SENIOR MUTILAK

Ogiberri-Aloña Mendi 67-45

Candy Bergara-Oiarso 113-42

SENIOR NESKAK

Cafes Aitona-Aloña Mendi 82-15

GAZTE MUTILAK

Zarautz-Mugarri Alkesa 63-48

Araneta-STL Azkune 73-45

Aloña Mendi-Internacional 50-41

GAZTE NESKAK

Aloña Mendi-BKL CAF 24-17

Internacional-Eskoriatza 60-28

KADETE MUTILAK

Cafes Aitona-Mugarri Alkesa 69-63

Easo C-Lacor BKE 37-68

Andraitz-Aloña Mendi 75-45

KADETE NESKAK

Eskoriatza-Txirrita 27-40

Bergara-Atco Sn. Sn. 43-50



ITZIAR ZUBIA

Ernesto Lorenzo izan zen helmugara sartzen lehenengo debagoiendarra; lehenengo oñatiarraren saria jaso zuen Ernestok. Irudian Ernesto Belarren ageri da, Aloñatik behera datorrela.

MENDI LASTERKETA | EGURALDIA LAGUN IZAN ZUTEN ATZO KORRIKALARIEK

Ionut Zinca errumaniarrak iaz egindako errekorra hautsi zuen

Oñatiko plazan 254 parte-hartzaile elkartu ziren mendi lasterketari hasiera emateko

Iaz bezala, Ionut Zinca jaitsieran nabarmendu zen; izan ere, Aloñako tontorrera hirugarren iritsi zen

Arantzazu Ezkibel

Ionut Zinca iaz eginiko denbora 50 segundo hobetu zuen atzo jokatu zen Aloñako II. Igoeran. Errumaniarra azkarrena izan zen Oñatiko helmugan, 1:13:23 denbora eginda.

254 korrikalari elkartu ziren Oñatiko plazan, Aloñako II. Igo-

erari hasiera emateko. Parte-hartzaileen artean 14 emakumeak izan ziren.

URTIAGAINEN IONUT LEHENA

Ionut errekorra haustera etorri zen Oñatira. Bere helburua iaz eginiko denbora hobetzea zen. Hala, lasterketa hasieratik aurrera ibili zen.

Korrikalariak Oñatiko plazatik irten eta Garagaltzarako bidea hartu zuten. Hortik, Urriagainera igo ziren. Lasterketaren hasierako ibilbidea zuhaitz artean egin zuten korrikalariak. Eta egiten zuten eguraldia dela-eta, parte-hartzaileek gustura hartu zuten gerizpean eginiko zatia.

Urriagainera Ionut iritsi zen lehenengo. Hala ere, bigarren eta hirugarrenen artean aldea ez zen handia izan. Puntu horretara iritsi zen lehenengo emakumea, berriz, Alicia Romero durangarra izan zen.

Urriagainetik Aloñako tontorrerako bidean Ionutek lehenengo postua galdu zuen. Aloñako gurutzera Imanol Etxeberria iritsi zen lehenengo, 49 minutu eta 24 segundo eginda. Iaz, Aloñara lehenengo iritsi zenak 50 minutu eta 37 segundo behar

izan zituen. Imanolen atzetik Arkaitz Sodupe eta Ionut Zinca iritsi ziren Aloñako tontorrera. Lehenengo hiruren artean den-

bora tarte txikia zegoen, eta, hori aprobeztatuz, Ionutek beherakoan aurre hartu zuen.

JAITSIERA GOGORRA

Aloñako Igoera mendi lasterketen artean gogorrenetarikoa da. Izan ere, 16 kilometroan 2.200 metroko gorabehera egin behar dute. Jaitsieran teknikoki ona izatea beharrezkoa da. Eta atzo, Ionutek jaitsieretan maisua dela erakutsi zuen. Beherakoan lehenengo postua eskuratu zuen errumaniarrak.

“Jaitsiera gogorra egin zait. Oinetako oso onak ekarri ditut, baina, hala ere, azkazal guztiak hautsi ditut”, esan zigun Ionutek.

Antolatzaileak gustura geratu ziren lasterketak izandako harrerarekin. Oñatiko plazan eta Aloñako magalean jende ugari bildu zen lasterketa ikustera.

Aloñan Imanol Etxeberria izan zen azkarrena, 49 minutu eta 24 segundo eginda

Iaz bezala, Ionutek jaitsieran lortu zuen lasterketako lehenengo postua eskuratzea

ALOÑAKO II. IGOERA



OIHANA ELORTZA

Gustura hartu zuten ura. Egiten zuen eguzkia dela-eta, ura beharrezkoa izan zuten korrikariek atzo. Argazkian, Gurutze Altuna ageri da, Debagoieneko lehenengo emakumea, ura edaten.



JOSETXO ARANTZABAL

Oinak zaurituta. Hanka azpiak guztiz zaurituta bukatu zuen Igor Cerrajonek. Atzo, Gurutze Gorrikoek lana izan zuten korrikariaren oinak sendatzen. Hala ere, inork ez zuen zauri larririk izan.



JOSETXO ARANTZABAL

Helmugara sartzen lehenengoa. Ionut Zinca iritsi zen lehenengo Oñatiko plazara. Iaz ere hura izan zen garailea. Aurtengoan, ordea, 50 segundo hobetu du 2005ean eginiko errekorra.



JOSETXO ARANTZABAL

Irabazle guztiak. Podiumean ageri direnak Aloñako II. Igoeran saria jaso zutenak dira. Lehenengo gizonezko eta emakumezkoen gain, lehenengo oñatiarrek ere izan zuten bere saritxoa helmugan.

Emaitzak

GIZONEZKOAK

Seniorrak

1. Ionut Zinca (1:13:23)
2. Fernando Etxegarai (1:13:50)
3. Arkaitz Sodupe (1:14:11)
4. Imanol Etxeberria (1:14:48)
5. Unai Santamaria (1:17:06)
6. Etor Etxeandia (1:17:17)
7. Mikel Navarro (1:18:00)
8. Ernesto Lorenzo (1:18:03)
9. Patxi Irazoki (1:18:12)
10. Aritz Kortabarria (1:18:41)

Beteranoak

1. Jesus Maria Perurena (1:19:09)
2. Ander Unzurrunzaga (1:20:58)
3. Xabier Goikoetxea (1:27:59)
4. Jesus Mari Zabaleta (1:28:11)
5. Luis Urruzola (1:29:34)
6. Jose Manuel Intxaurreaga (1:34:33)
7. Jose Luis Gisasola (1:34:50)
8. Josu Gascon (1:35:19)
9. Miguel Angel Del Barrio (1:35:45)
10. Alfredo Fernandez (1:37:39)

EMAKUMEZKOAK

Seniorrak

1. Alicia Romero (1:28:47)
2. Jaione Sasieta (1:35:11)
3. Gurutze Altuna (1:36:38)
4. Marta Garcia (1:43:36)
5. Juana Mari Pelaez (1:57:20)
6. Ainhoa Larrañaga (2:03:50)
7. Ana Arkauz (2:21:04)
8. Arantazu Urzelai (2:35:54)
9. Eva Hernandez (2:39:41)

Beteranoak

1. Helena Perez (1:36:09)
2. Loli Benitez (1:43:12)
3. Marifran Alonso (1:54:50)
4. Ana Carmano (1:57:07)

LEHENENGO DEBAGOIENDARRAK

8. Ernesto Lorenzo (1:18:03)
10. Aritz Kortabarria (1:18:41)
15. Iban Letamendia (1:20:13)
24. Aitor Arana (1:22:38)
38. Jose Antonio Larrea (1:26:15)
47. Jon Aizpeurrutia (1:28:00)
50. Iñaki Arriaran (1:28:16)
58. Jesus Zabaleta (1:29:31)
67. Jabier Arriaran (1:30:32)
76. Iñaki Korta (1:31:48)
78. Josu Odriozola (1:32:19)
79. Iban Guridi (1:32:20)

• HONELA IKUSI DUTE PARTE HARTZAILEEK LASTERKETA



IONUT ZINCA | ERRUMANIA
LEHENENGO GIZONA

“Jaitsiera azkarra egitea zen helburua eta lortu dut”

Nire helburua iaz eginiko denbora hobetzea zen. Lasterketa ona egin dudala uste dut. Igoeran ondo joan naiz, geratu gabe eta jaitsiera azkarra eginez lehenengo postua eskuratzea lortu dut.



ALICIA ROMERO | DURANGO
LEHENENGO EMAKUMEA

“Igoera oso gogorra dauka Aloñako mendi lasterketak”

Gogorra egin zait Aloñako igoera. Hala ere, ondo ikusi dut nire burua eta azkenean denbora ona egitea lortu dut. Antolakuntzari dagokionez, oso lan ona egin dutela esan behar. Guztia ondo adierazita egon da.



GURUTZE ALTUNA | OÑATI
DEBAGOIENeko 1. EMAKUMEA

“Aurten hartu dut parte lehenengo aldiz eta gustura nago”


Igoera gogorra egin zait. Denbora gutxian asko igo behar da. Beherakoan, berriz, azkar jaitea nahi izan dut eta gogorra egin zait. Eguraldi ezin hobea egin du eta antolakuntza ere oso ona izan da.

Iruditlan



ARANTZAZU EZKIBEL

'3 haundixak 3 egunetan' mendi ibilaldia. Gipuzkoa osotik etorritako 25 pertsona ari dira AEDk antolatutako mendi ibilaldian. Mendizaleak zapatu goizean atera ziren Arrasatetik. Lehenengo egunean Aizkorri igo zuten. Eta Gatzagan lo egin eta gero, bigarren egunean Anbotora abiatu ziren; gaur Gorbeia igotzeko asmoa dute.



JOSETXO ARANTZABAL

Herri arteko pilota sariaketa. Kadete eta senior mailetakoko partiduak irabazita, Bergara 2-1 aurreratu da Antzuolaren aurka.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Bergarako ehiza txapelketa. 36 ehiztarik hartu zuten parte Zanbranan jokaturako txapelketan. Unai Etxeberria eta Txomin Lete -hura beteteranoen mailan- izan ziren irabazleak. Argazkian, ehiztariak.



JOSETXO ARANTZABAL

Areto futbola. Eskoriatzak 2-6 galdu zuen Gernikaren aurka. Hiru partidu falta dira liga amaitzeko.



JOSETXO ARANTZABAL

UDA-Jostaldi. Ligako azken partiduan UDAK ez zuen ezer jokoan. Eta galdu egin zuen (1-7).

LEHENENGO MAILA

ARANTZA ORUNA | REALEKO BAZKIDEA, ARRASATE TXURI-URDIN TALDEKO PRESIDENTEA

"Cadiz eta Alaves ikusten ditut Bigarren Mailan"

Xabier Urtzelai

Ezetz, ez dugula Liga amaiera lasaia izan behar.

Bistan da ezetz, azken momentura arte borrokan egin beharko dugu. Espero dut eguaztenean Cadizi irabaztea, Celta mendean hartzea gaitzagoa izango dela iruditzen zait-eta. Argi daukadana da ez dudala Espanyolen etxera joan gura etxeko lanak egin barik.

Sevilla UEFAko finalera begira dagoela entzun dugu behin eta berriro.

Eskerrak! Hamaikakoa eman da zeukatenean sartu nintzen ni zelaira, eta uste dut Sevillak ordezko askorekin jokatu zuela. Dena dela, Vila-realen kontrako partiduan ez bezala, ordezkoek maila oso polita eman zuten. Gogoratu, gainera, UEFAko finalerako gola ere ordezko batek egin zuela.

Zer falta izan zitzaion Realari?

Gauza asko, tamalez. Lehenengo zatian Sevilla indartsu hasi zen, baina esperantzak nituen, Realera ere ahaleginetan zebilelako. Dena dela, talde txuri-urdinaren jokoa erraz aurreikus zitekeen, Mark Gonzalezek hegaletik egin zituen-eta arrisku jokaldi guztiak. Bigarren zatia negargarria izan zen: Mark Gonzalez desagertu egin zen, Sevilla horretan ahalegindu zelako, eta Skoubo oso bakarrik ikusi nuen, jokoan parte hartu barik.

Eta amaitzeko, epailea (Rubinos Perez). Aspaldian ez du jaso epaile batek horrelako txistu zaparrada.

Merezitakoak izan ziren txistu guztiak. Egia da *Bonba*-ren



Cadizi irabazita, Celtaren partidura lasai joan gura du Arantzak.

kanporaketako jokaldia ez nuela ikusi, gu futbol zelaiaren beste aldean geundelako. Baina, Nihatent txartel gorria gehiegizkoa iruditu zitzaidan. Hori bezain larria da Sevillako jokalariek gura zuten guztia egin zutela.

"Realaren jokoa erraz aurreikusi zitekeen, dena ezker hegaletik"

Mallorcak eta Racingek bizirik jarraitzen dute.

Zelan dauden jaitsiera postuak... Malaga dagoeneko Bigarren Mailako taldea da, eta Alaves eta Cadiz ere kategoria horretan ikusten ditut. Dena dela, batek daki zer gertatuko den. Kontuan izan, baita ere, Racingek oso kontrario gogorren kontra jokatu behar duela: Madril, Osasuna eta Vila-real. Nik gauza bakarra dut buruan, eguaztenean irabaz dezala Realak, eta kito. Dena dela, esango nuke puntu bat eskuratzearrekin nahikoa dela.

Harmailatik

Marketing kontuak




Xabier Urtzelai

Emozioak saltzen du. Gero eta argiago daukat. Pilotan, enpresei final-erdietan hirugarren partidua jokatzea komeni zaien moduan, futbolearen ere emozioa egon behar da salgai, eta azken unera arte bada, hobeto. Ligak edo Europako postuetara begira egoteak ematen du gozamen-emozioa. Gozamen horrek beste saltzen du, baina, sufrimenduzko emozioak. Eta orain momentuan, Alaves, Athletic eta Realera emozioz gainezka daude; pozik egongo dira marketing arduradunak.

Sevillako feria. Neure kontuak izango dira, baina batzuetan ematen du Andaluzian urte osoa ematen dutela jairik jai. Eta, futbol taldeak horretarako motiboa ematen badu, hobeto. UEFAko finalera sailkatuta, Juande Ramosek ospatzeko baimena eman zien jokalariei. Parranda egin eta gero, Sevillan manzanilla hartzen


dute. Bada, Navas, Navarro, Sales eta konpainiak litroka hartu dute manzanilla. Anoetan erakutsi zuten zergaitik sailkatu diren UEFAko finalera. Realaren kontra Riquelme gorde zuten Pellegrinik eta Saviola gorde du Ramosek. Non dago alde? Oraingoan ordezkoek erantzun egin dutela. Seguru egon Sevillako entrenatzaileak ez dituela Vila-realekoak entzun zituen kritikak entzungo, nahiz eta berdin jokatu.

Aitor Gonzalez. Lasai egon, ez dugu-eta burua galdu; ziklismoaren gainekoak dira azken lerro hauek. Euskalteleko ziklistak ustezko positiboa eman zuenean egunkari batek baino gehiagok azalera eraman zuten gai hori. Positiboa gezurtatuta, egunkari berdinek bi lerro eskaini diote albisteari. *Fe de erratas* da txarto dagoena zuzentzea. Beste horri, baina, *fe de ratas* esaten zaio.



Xavi Hernandez

Hainbat hilabete min hartuta egon eta gero, zapatuan 80. minutuan zelairatu zuen Rijkaardek. Eta, Nou Campekin zutik hartu zuen jokalaria. Itzuli da joko antolatzaile onena.



Rubinos Perez

Domekan Anoetako zaleak eta talde txuri-urdina telebistaz jarraitu zutenak beren onetik ateratzea lortu zuelako. Ezin direlako erabaki guztiak bietako baten alde hartu.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Osasuna-R.Madril	0-1
Malaga-Racing	2-3
Getafe-Vila-real	1-2
Zaragoza-Espanyol	1-1
Valentzia-Alaves	3-0
Athletico-Mallorca	0-1
Deportivo-Celta	0-2
Betis-Athletic	1-1
Bartzelona-Cadiz	1-0
Real-Sevilla	1-2

HURRENGOAK

Racing-R.Madril
Vila-real-Malaga
Sevilla-Getafe
Cadiz-Reala
Celta-Bartzelona
Espanyol-Deportivo
Athletic-Zaragoza
Alaves-Betis
Mallorca-Valentzia
Athletico-Osasuna

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	76	35	23	4	7	74	29
2. Valentzia	68	35	19	5	11	55	28
3. R.Madril	66	35	19	7	9	61	31
4. Osasuna	62	35	19	11	5	45	40
5. Celta	60	35	19	13	3	42	30
6. Sevilla	56	35	16	10	8	42	34
7. Deportivo	52	35	14	11	10	44	41
8. Getafe	51	35	14	12	9	51	44
9. Atletico	50	35	13	11	11	43	34
10. Vila-real	50	35	12	9	14	43	35
11. Zaragoza	43	35	9	10	16	42	47
12. Reala	38	35	11	19	5	44	60
13. Betis	38	35	9	15	11	31	47
14. Espanyol	38	35	9	15	11	34	52
15. Racing	37	35	8	14	13	32	43
16. Mallorca	37	35	8	14	13	31	47
17. Athletic	36	35	8	15	12	34	44
18. Alaves	33	35	7	16	12	32	51
19. Cadiz	32	35	7	17	11	28	47
20. Malaga	24	35	5	21	9	35	59



Kiniela

KINIELA

1. Valentzia-Alaves	1
2. Betis-Athletic	X
3. Zaragoza-Espanyol	X
4. Bartzelona-Cadiz	1
5. Real-Sevilla	2
6. Getafe-Vila-real	X
7. Malaga-Racing	2
8. Athletic-Mallorca	2
9. Osasuna-R.Madril	2
10. Levante-Hercules	1
11. Murtzia-Almeria	1
12. Valladolid-Sporting	2
13. Eibar-Tenerife	2
14. Lleida-Recreativo	2
15. Deportivo-Celta	2

Euskal taldeen asteko hamaikakoa




KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Capelladeseko (Bartzelona) musika eskolako ikasleek emanaldia egin zuten Bergaran | 22
- Eguenean banatu zituzten AEDko kideek Arrasaten literatura sariak | 23

Asier Altuna 'Kixi'-rekin 'Sarean' film laburraz eta dituen proiektuez jardun dugu | 26

TXOTXONGILO IKUSKIZUNA



JOSETXO ARANTZABAL

Batuta panpina da protagonista, eta hark eraman zituen haurrak Taun Taunek proposatutako mundu magikora.

TXOTXONGILOAK | TAUN TAUN TALDEAK BERE AZKEN IKUSKIZUNA EGIN ZUEN ZAPATUAN ARRASATEKO AMAIA ANTZOKIAN

Panpinen eta eszenografiaren magiak guztiz irentsi zituen neska-mutikoak

Bergarako Taun Taun antzerki taldearena da 'Batuta' txotxongilo ikuskizuna; musika ardatz hartuta, haurrak jolasaren bitartez klasikoetara gerturatzea da helburua

Jon Berezibar

Antzoki osoa ilunpean eta eszenatokia argitxo soil batzuekin bakarrik argizatuta hasi zen Taun Taun taldearen txotxongilo-ikuski-zuna. Tren hegalaria bat iradokiaz, titiriteroek magia betetako mailetak utzi zituzten Amaia antzokiko oholtzan, haurren ezustearen zain.

Titiritero ikuskizunek berez duten magia aprobetxatuta, haurrak berehala sartu ziren istorioan eta Taun Taunekoek proposatutako jokoan. Batuta izeneko pertsonaia da ikuski-zun horretako gidaria. Bere izenak esaten duen moduan, obra zuzendu eta musika haurrengana gerturatzeaz arduratzen da

Taun Taunekoek egindako panpina xelebrea. Aldamenean Notatxo laguna ere aurkeztu zuen eta elkarrekin musikaren funtsa zertan datzan azaldu zieten Amaia antzokira gerturatutako haurrei.

UMEAK AHO ZABALIK

Neska-mutikoak bete-betean murgildu ziren txotxongiloen munduan. Maleta hegalaria, ezerezetik sortutako pentagramak, izaki txikiak gordetzen dituzten kaxak... Harriduraren baina aurrean zeukatena guztiz sinistuta, barre eta jolas egin zuten Batuta eta lagunekin.

Obra erraza zen jarraitzeko eta haurrek ez zuten inolako arazorik izan titiriteroen iaiotasu-

naz gozatzeko. Haur askok, gainera, beste txotxongilo bat izan zitezkeelakoan-edo pertsonaiei erantzun eta istorioarekin bat egin zuten, panpinen dantza eta

Harrituta baina bete-betean sinistu zuten haurrek begien aurrekoa

Hala ere, taldekoek diote txotxongiloak helduendako ere badirela

jolasekin hipnotizatuak egongo balira bezala. Pentagrama, batuta konposizioa eta halako kontzeptuak aurkezten zaizkie haurrei *Batuta* lanean, eta klasikoetara gerturaketa gisa-edo funtzionatu gura du. Helburu didaktikoa zalantzan ipini barik, haurrentzako beti da dibertigarria txotxongilo lan bat, eurek inork baino gertuago sentitzen dituzte-eta panpina bizidun horiek. Zer esanik ez Taun Taunekoak estetika fineko eta gustu handiko ikuskizunak egiten dituztela. Aurki, gainera, mostra egingo dute Bergaran. Orduan, umeei baino gehiago, nagusiei zuzendu gura dizkiete lanak. Izan ere, txotxongiloak nagusiendako ere badirela diote.

TXOTXONGILO IKUSKIZUNA

ITSASO AZKARATE | AKTOREA ETA TITIRITEROA

"Aktorearen luzapena izan behar du txotxongiloak, hari bizia ematen"

J. B.

Itsaso Azkarate bergararra arduratu zen zapatuko ikuskizunean Batuta eta lagunei bizitza emateaz. Taun Taun konpainiako kide da aktorea.

Aspaldidanik ez zarete hemen inguruan ibili; lan handia kanpoan?

Abenduan *Batuta* lana aurkeztu genuenetik ez gara gelditu. Orduetik hona obra bera moldatzen eta berrikusten ibili gara eta eszenografia ere aldatu dugu. Tarte horretan, beraz, entseatzen ere ibili gara. Aurreko lanarekin ere Zugarramurdiko topaketetan egon gara, guztia prestatzen ibili gara. **Lan guztia prestatzen zenbat denbora ematen duzue?**

Obraren araberakoa izaten da. Normalean entseguak eta prestatketak batera egiten ditugu. *Galzardia*-ren antzezlanean, adibidez, testua Mariasun Landarena zen eta guk moldaketa egin genuen. Hala, probak egiten hasi ginen, zelan molda genezakeen ikusteko, panpinen efektuak... Datarik ez dugu aurrez ezartzen, baina egin ditzakegu bospasei hilabete. Kon-


tu hartu behar da proba asko egiten ditugula, panpina askorekin, eta esperimendu horietako asko ez dira estreinatutako obrara helzen. Gure lana ez da aurrez oso erraz iragartzekoa. Aktoreek testu bat izaten dute eta hura ikasita lanean has daitezke; gu ez.

Aktoreok zuok egin ohi dituzue erabiltzen dituzuen txotxongiloak?

Ez du zertan, askotan beste batek egiten dizkigu. Adibidez, goma-aparreko panpinak Mikel Ibarzabelek egiten dizkigu. Garrantzitsua panpina nork bere erara egitea da, norberak erabiliko du-eta. Objektu bat dela edo txotxongiloa dela, norberaren mugimenduen luzapena izan behar du. Aktore bakoitzak bere egiteko modua dauka eta panpina berarekin pertsonaia erabat desberdinak egiten dira, pertsonaren arabera ematen zaio bizitza panpinari, aktoreak duen energiak moldatzen du.

Maneiatzen ikasteko eskolarik badago?

Gu, behintzat, autodidaktak gara. Ohiturarik ez dago hemen, bigarren mailako generoa bezala ikusi da txotxongiloena, kaleko entretenimendu moduan, beste-



JOSETXO ARANTZABAL

Ekainerako gertatzen dabilta txotxongilo mostra.

lako garrantzirik eman barik... Eta, zer esanik ez, helduen txotxongiloek bagabiltza. Orain taldeak sortzen hasi dira eta gauza interesgarriak egiten hasi, baina ez zaio garrantzirik ematen. Bada-

go Bartzelonan oso eskola garrantzitsu bat; antzerkia ikasten da han, baina txotxongiloek garrantzia ematen diete, nazioarteko irakasle benetan onekin. Momentuz, hemen noizean behineko ikasta-

"Bigarren mailako genero bezala ikusia izan da txotxongiloena, kaleko gauza-edo"

"Umeendako magikoa izan behar du, bete-betean sartzen dira-eta zure unibertsoan"

roak antolatzen dira, baina beste-lako jarraipenik eman gabe.

Zein herrialdeetan dago tradizio handien?

Ekialdeko herrialdeetan, gehienbat. Han beti egon dira eskolak, taldeak... Programazio egonkorra egon da. Eurak izan dira beti jaun eta jabe, baina gero eta leku gehiagotan dago.

Haur eta helduekin egin ohi duzue lan?

Denetik. Hala ere, taldea helduendako lan egiteko ideiarekin sortu genuen, txotxongiloekin lan egin zein bestelako antzerki bisuala lantzeko. Oso mundu zabala da gurea. Ez daude txotxongiloak bakarrik, beti ikusi izan diren moduan. Txotxongiloa berez edozein objektu izan daiteke, edozein adierazpen estetiko: itzalak, atzamarra, panpinak... Berba egiten duen aktorea ez den zerbait.

Eta umeekin ala helduekin nahiago?

Niri berdin zait. Guk garbi daukaguna da umeendako bada ere, lanak berdin-berdin izan behar duela zorrotza eta kalitatezkoa. Haurra etorkizuneko ikuslea da eta hor hasten da antzerkiarekiko maitasuna sortzen. Umetan dena eman behar zaie, ez dira-eta inozoak, eta badakite noiz zabiltzan ikuskizun ona egiten. Haurrekin ere asko zaindu behar da estetika eta argiztapena. Umearendako magikoa izan behar du, munduko ikuslerik onenak dira, zuk sortutako unibertso horretan bete-betean sartzen direlako.

Aurten ere Bergarako mostra antolatuko duzue?

Bai, bi urtean behin egiten dugu eta oker ez banago aurten-go dagoeneko zortzigarrena izango da, Udalaren laguntzarekin, ekainaren 15etik 18ra. Helduak erakarri gura ditugu mundu honetara. Ikuskizun txikiak baina mota guztietakoak ekarriko ditugu. Aurten, gainera, animazio filmak ekartzeko asmoa daukagu, guk lantzen dugun eremuarekin zerikusi handia dauka-eta.

Elgeta hizpide

DEBARRI

Patxi Basauri, Elgetako alkatearekin berbetan

Eguaztenean, maiatzaren 3an, 21:45ean

Parte hartzeko: www.goiena.net/eztabaidak

DEBARRI: BABESLEA



Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!





JOSETXO ARANTZABAL

Bergarako Musika Eskolako ikasleek urrian itzuliko diete bisita Capelladeskoiei.

Haydn-ek batu zituen Bergara eta Capelladesko eskolak

Capelladesko (Bartzelona) musika eskola Bergarakoak gonbidatuta izan da gurean asteburuan; zapatuan emanaldia egin zuten

Non. Bergarako Mariaren Lagundiaren elizan.
Zenbat jende. Eliza beteta.
Iraupena. Ordu eta erdi inguru.

M.B.

Begarako Musika Eskolak antolatutako *Apirilean Musika* egitarauari bukaera ezin hobea eman diote asteburuan eskola-koek. Capelladesko (Bartzelona) musika eskolako ikasle eta irakasleak izan dituzte gonbi-

datu herrian: 50 bat ikasle, bost irakasle eta hainbat gurasok lagunduta.

KONTZERTU EDERRA EGIN ZUTEN ZAPATUAN

Mariaren Lagundiko eliza berehala bete zen zapatu iluntzean kontzerturako, eta hainbat lagun-ek zutik geratu behar izan zuten.

Capelladesko musika eskolako abesbatzak ireki zuen emanaldia. Lau kantu egin zituzten, horietako bi euskaraz: *Itsasoan* eta *Agur Jaunak*, hain justu

ere. Saioari amaiera emateko, eta egitarautik kanpo izan bazen ere, Kataluniako kantu herriko bat abestu zuten.

Abesbatzaren ostean, Soka Orkestra Juniorrak, Haize eta Perkusio Orkestrak, Lotus Talk Laukoteak eta Ganbara Orkestrak jo zuten. Emanaldi polita egin zuten guztiek, herritik kanpo eta eszenetatoki ezezagun batean jotzeak sortzen duen emozio, ilusio eta urduritasu-narekin.

Capelladeskoen ondoren, Bergarako Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoak ere eskaini zituen bi lan. Baina emanaldiaren unerik politena etorri zen bi herrietako musika eskolak batu eta elkarrekin Haydn-en *Menuet* egin zutenean.

Ohi bezala, daukaten guztia eman zuten Aterkings taldekoek Arrasaten

UEK taldearekin batera jardun zuten bizkaitarrek egubakoitzean 3.60 aretoan, eta dagoeneko bigarren lana prestatzen ari dira

M.B.

Ez zen jende askorik batu egubakoitzean Arrasateko 3.60 aretoan, baina hori ez zen eragozpen izan Aterkings taldeko kideendako. Ohi bezala, guztia eman zuten eta gogoz saiatu ziren areto-ko giroa pitzen.

Ordubete inguruko emanaldia Pleasure Fuckers taldearen *Ripped To The Tits* kantuarekin ireki zuten –talde ikonoa, Aterkinsekoen esanetan–. Hain zuzen ere, 17 kantu jo zituzten guztira, 12 eurenak eta bost bertsiok; izan ere, gustuko dute kantu onen bertsiok egitea.

URRIRAKO BESTE DISKO BAT

Datorren asteburuan Castro Urdialesen egingo dutena izango da denboraldi batean emango duten azkeneko kontzertua. Izan ere, hurrengo diskoa prestatzen hasi dira dagoeneko. Hala, "kantu berriak sortu eta diskoa borobiltzeko lokalean sartu eta horretan jarriko ditugu indarrak orain", esan digute taldeko kideek. Abuztuan hasiko dira lana grabatzen, Urdulizko Tio Pepe estudioan –lehenengo diskoa ere, *Rock'N'Roll* (2005ean), han grabatu zuten–, eta urrian kalera-tuko dute Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin.



JOSETXO ARANTZABAL

Kantu propioak eta gustuko dituzten taldeen bertsiok jo zituzten.



KONTZERTUA | LA POLLA ETA GATILLAZOREN OINORDEKOAK

Indarra dariela ezin da ukatu, eta zapatuan 3.60 aretoan egindako kontzertua ere halakoxea izan zen: indartsua. Aguraingo Kaotiko taldeak azkeneko lana –laugarrena– aurkeztu zuen jarraitzaileen aurrean: *Destino escrito*. La Polla eta Gatillazo taldeetan aritutako Evaristoren ondorengoek haren pausoak jarraitu dituzte eta sekulako arrakasta lortu dute aspaldi honetan. Eta, hain zuzen ere, horren adierazgarri izan zen Arrasaten egindako emanaldia.



ERAKUSKETA | LONBIDEREN LANAK IKUSTEKO AZKEN EGUNAK

Maria Dolores Lonbide margolari soraluzetarraren margo erakusketa ikusteko azken aukera dute interesatuek. Izan ere, artistak apirilaren 12a ezkerko ditu ikusgai lanok Elgetako Espaloia kafe antzokian, eta bihar, martitzena, kenduko ditu. 15 margok osatzen dute erakusketa eta askotariko gaiak irudikatzen dituzte; izan ere, askotariko gaiak lantzen ditu Lonbidek, eta kolore biziak erabili. Eta hori nabaria da Espaloiko erakusketan: nekazaritza giroa, hirikoa, loreak, natura hilak... ikus daitezke.

LITERATURA | AED ELKARTEA POZIK DAGO XIX. ALDIAK IZANDAKO ERANTZUNAREKIN: 145 LAN JASO DITUZTE

Arrasate Lehiaketetako irabazleek pozik eraman zuten saria etxera

24 lagunek jaso zuten saria, eta ipuinen sailean egon den maila nabarmendu dute antolatzaileek

Monika Belastegi

Eguenean banatu zituzten Arrasate Lehiaketetako sariak AED-ko kideek. Monterron jauregian izan zen sari-ematea eta pozik asko jaso zituzten sariak irabazleek, Mikelazulo elkarteko lagunek egindako *Erloju lehorrak* ikuskizunaren ondotik.

Pozik azaldu dira antolatzaileak lehiaketan 19. aldiak izan duen erantzunarekin: 145 lan jaso dituzte; horietatik 67 ipuinak izan dira, 35 poesiak, 21 bertso paperak eta 22 komikiak. Horren haritik, antolatzaileek Arrasateko ikastetxeak ekarri zituzten gogora sari-ematean, "lehiaketaren arrakasta eta hau guztiau, neurri baten, eurei esker" izan delako. Epaimahaia osatu zuten kideei eta Udalarari ere eman zizkieten eskerrak Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteko kideek.



Irabazle guztiak ez, baina gehienak joan ziren Monterron jauregira saria jasotzera. Udaleko, AEDko eta ikastetxeetako ordezkariak banatu zituzten sariak.

MAIDER ARREGI

XIX. Arrasate Lehiaketetako saridunak

IPUINAK

HAURRAK

- 1. saria:** *Zergatik ez dira pelikanoekin joaten.* Maria Hernandez.
- 2. saria:** *Gerra garaian maitasuna.* Xabi Uriarte.

GAZTETXOAK

- 1. saria:** *Argazkiko oroitzapena.* Ainhoa Elorza.
- 2. saria:** *Inoiz sentitu gabekoa.* Amaia Kortabarria.

GAZTEAK

- 1. saria:** *Zaldi Zuriaren itzulera.* Oihane Urtzelai.
- 2. saria:** *Hegazkinekino gogoetak.* Maddi Bengoetxea.

HELDUAK

- 1. saria:** *Barren.* Urtzi Armendariz.
- 2. saria:** *Ez nekiela esan nion bart ilargiari.* Maria Amutxastegi.

POESIA

GAZTETXOAK

- 1. saria:** *Nork ez du hori inoiz sentitu?* Maddi Iregi eta Elene Berezibar.
- 2. saria:** *Lide Arenatza.*

GAZTEAK

- 1. saria:** *Haurrak.* Naiara Zabala.
- 2. saria:** *Handi zein txiki.* Hodei Balantzategi.

HELDUAK

- 1. eta 2. saria:** Hutsik uztea erabaki dute.
- Aksesita:** *Zentzugabekeria eraikitako ametsak.* Ander Elkoro.
- Aksesita:** *Denbora gelditzean.* Urtzi Armendariz.

BERTSO PAPERAK

GAZTETXOAK

- 1. saria:** *Maite zaitut.* Garazi Barberan.
- 2. saria:** *Zer ote da?* Xabi Igoa.

GAZTEAK

- 1. saria:** Hutsik uztea erabaki dute.
- 2. saria:** *Hormaz beste aldera.* Amaia Sanchez.

HELDUAK

- 1. saria:** Hutsik uztea erabaki dute.
- 2. saria:** *Kontuz badatorrela!* Julen Beitia.

KOMIKIA

GAZTETXOAK

- 1. saria:** *Ametsetako basoa.* Maite Carrasco.
- 2. saria:** *Kutsadura.* Andrea Vazquez.

GAZTEAK

- 1. saria:** *Aita zain naukazu.* Maite Sanchez.
- 2. saria:** *Abdul.* Iñigo Merino.

HELDUAK

- 1. saria:** *Geurie geuretzat.* Amaia Arana eta Miren Zubizarreta.
- 2. saria:** *Txomin Seriouski eta Josu Trakets.* Gau lasai bat. Jon Urkizu.

Autoak aztergai

Autoen gaineko gehigarria, datorren egubakoitzean, maiatzaren 6an, Goienkariarekin batera

- > AUTO BERRIAK
- > PUNTUKAKO GIDABAIMENA
- > SEKTOREKO AZOKAK
- > ASEGURUAK

Goienkaria



ESKORIATZA | 'KATAIA ETEN BARIK' JARDUNALDIEN EGUN HANDIA EGIN ZUTEN ZAPATUAN



Liburu dohaintza ugari egin dituzte eskoriatzarrek liburu azoka egiteko. 400 bat liburu egon ziren eskuragarri.

Harrera ona izan du herrian liburuak trukatzeko ekimenak

Lau kontinentetako hamabi hizkuntza entzuteko aukera ere izan zen Eskoriatzako azokan

Larraitz Zeberio

Jardunaldi irudimentsua egin zuten zapatu arratsaldean Eskoriatzan. Eta jendez bete zen herriko plaza. Hain zuzen, liburu azoka zabaltzea izan zen antolatuzaileen lehenengo zeregina eta 17:30etarako eskuragarri ziren lau mahai handitan banaturik 400 liburutik gora. Mahai luzeean ipuinak zeuden eskuragarri. Jarraian, gazte literaturaren barruan sailkatuko genituzkeenak. Eta, azkenik, nagusiagoei zuzendutako liburuak beste bi mahaitan kokaturik.

"Ekimenak erantzun ona izan du", adierazi zigun Eskoriatzako bibliotekako arduradun Iñaki Agiriano. "Eskoriatzarrek hornitu dute azoka etxetik ekarritako liburuekin, baita Bibliotekak egin duen dohaintzarekin ere, eta 400 bat liburu egongo dira".

Bibliotekaria pozik zegoen, baita herritarrak ere. Askok eskuan zituzten liburu trukaketarako txartelak. "Ekarri dugun liburu bakoitzeko bi eraman ditza-kegu gaur", adierazi zigun neskato gazte batek. Sei aukeratu behar zituen, eta amaren laguntzarekin egin zuen hautaketa.

HIZKUNTZAK PLAZARA

Arreta handia piztu zuten, era berean, arratsaldeko zazpitan hainbat jatorritako lagunek euren hizkuntzetan egindako irakurketek. Lau kontinentetako 13 lagun jarri ziren mikrofono aurrean, nor bere ama hizkuntzan lerrotxo batzuk irakurtzeko. Hamabi hizkuntza entzun ziren Eskoriatzako plazan eta askok ondo zorrotz behar izan genituen gure eskal belarriak, hizkuntza gehienak arrotzak egin zitzaizkigun-eta. Alemana, portugesa, katalana eta gaztelania nahiko hurbilekoak egin zitzaizkigun. Ez, ordea, txinera, japoniera, Holandako nederlandera, Pakistango pungabia zein urdua, Senegalgo wolof hizkuntza edo Guatemalako garifuna. Horren harira, euskarazko testu batekin eman zioten amaiera irakurketa saioari.

• GUSTATU ZAIZU LIBURU AZOKA?



JON | ARETXABALETA

"Ideia bikaina iruditzen zait liburuak esku batetik bestera pasatzea"

Julen semearekin batera liburuak aukeratzen ari ziren Eskoriatzako liburu azokan. "Ekimen hau ideia oso ona iruditzen zait", esan zigun. "Etxean hautsak hartzen egon beharrea liburuak esku batetik bestera pasatzea bikaina da. Sarriago egin beharko genuke".



LUZ MARIA | ESKORIATZA

"Liburuak trukatzeko ideia oso interesgarria iruditzen zait"

Luz Maria senarra eta Nagore alabarekin hurbildu zen azokara. "Orain, ez dut nahi beste denbora irakurtzeko, baina asko gustatu izan zait betidanik. Azoka ideia interesgarria iruditzen zait, liburuak trukatu eta gazteen artean irakurtzeko ohitura bultzatzeko".



SARA ETA MELISA | ESKORIATZA

"Guk egunero irakurtzen dugu, eta asko gustatzen zaigu, gainera; abentura-liburuak ditugu gustukoak"

Liburu sorta ederra zuten esku artean bi neskato horiek liburu azoka zabalduta eta gutxira. "Liburuak ekarri genituen etxetik eta orain ordezkioak aukeratzera etorri gara", esan ziguten. Askok irakurtzen omen dute, egunero, eta, euren esanetan, ez da egia gazteek gero eta gutxiago irakurtzen dutela. "Gure kasuan, behintzat, ez da horrela". Liburu gehiago aukeratzeko utzi genituen, lagunendako ere eraman behar omen zituzten-eta.

• ESKORIATZAKO LIBURU AZOKAK UTZITAKO BESTE IRUDI BATZUK



SENEGALGO MUSIKA. Kenkeliba taldeak girotu zuen Eskoriatzako azoka. Kalejira egin zuen taldeak arratsaldeko seietan, baita kontzertua ere ilunkeran. Musika etnikoa ere protagonista izan zen, beraz, liburu trukaketa eta hizkuntzen arteko loturak sendotzeko antolatutako azokan.



LIBURU TRUKAKETA. Nagusi zein gazte, jende asko hurbildu zen zapatu arratsaldean herriko plazako liburu azokara. Azkar ibili beharra zegoen, liburu interesgarrienak laster desagertu ziren-eta. Ume askok gurasoen laguntzarekin aukeratu zituzten liburu eta ipuinak.



MUNDUKO HIZKUNTZAK. Ekitaldi polita izan zen ondoren hizkuntzekin lotuta herriko plazan egin zena. Hainbat jatorritako 13 lagunek irakurketa laburrak egin zituzten, nor bere hizkuntzan. Munduko 12 hizkuntza ezberdin entzuteko aukera izan zen Eskoriatzako azokan.

maiatzaren

11tik aurrera

berria berria ≈ berria²

kazeta eredu berria

berritzailea, ezberdina, interpretatiboa, kalitatezkoa, modernoa,...

Gurean ULERTUKO DUZU

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**

Zinemagile bergararra ez da geldi egotekoa. *Sarean* izeneko film laburrarekin dabil orain hara eta hona. Eguaztenean Elgetako Espaloian eman zuten eta ez zuten

inor epel laga. Barruak astintzen dituen horietakoa da, eta horixe zuen helburu, hain zuzen, *Kixi*-k egin zuenean: ikusleak jabeaztea etorkinek itsasoan igarotzen

duten sufrimenduz. *Aupa, Etxebeste*-ren oihartzuna oraindik sendo entzuten da, baina ari da beste film luze baten gidoia idazten; marrazki bizidunena, hain zuzen.

ASIER ALTUNA 'KIXI' | ZINEMAGILEA

"Marrazki bizidunen film luze baterako gidoia idazten dihardut"

Monika Belastegi

Elgetako Espaloian mutu geratu ziren ikusleak *Sarean* ikusi eta gero. Beste leku batzuetan egindako emanaldietan ere horixe izan da erreakzioa?

Bai. Oso normala da erreakzio hori. Filma erabatekoa da, oso; ikusleak zaplaztekoa hartzen du filmarekin eta Elgetako erreakzioa ere horixe izatea espero nuen. **Erabatekoa istorioa bera da.**

Bai. Istorio errealean oinarrituta dago. Berez film laburrean gertatzen dena nahiko surrealista da, baina errealitatean oinarrituta –etorkinak eta paterak–, eta horregatik harrapatu egiten du ikuslea.

Elgetako ikusleetako batzuei, behintzat, gogorra iruditu zitzaion. Horixe eragin nahi izan duzu?

Bai, zalantza barik. Azken batean, ikusleari barruak astintzeko egin dut. Film labur oso probokatzaila da eta jendea ez da indiferente geratzen: batzuek gustuko dute eta beste batzuek ez, baina indiferente ez du inor lagatzen. Hain zuzen, horretarako eginda dago. Elgetara ere film laburra zergatik egin nuen azaltzera joan nintzen, baina, egia esan, ez dut uste azalpen beharrik dagoenik. Askotan hitzak soberan daude, eta hauxe da halako egoera bat. Film laburrak guztia esaten du.

Azken batean, hartu ditut arrantzaile batzuk, etorkin batzuk, eta joko horrekin guztia esanda dago.

Itsasoan filmatzea ez da erraza izango.

Ez, baditu bere zailtasunak itsasoa eta grabazioa uztartzeak: itsasoa asko mugitzen da. Laburrari, hasieran, umore ukitua eman nahi nion, umore beltza. Ukitu hori emateko, sekuentziatuko bat ume batekin egin behar genuen, baina gaizki atera zen: itsasoaren mugimendua, umearena... Azkenean, gaizki atera zen eta kentzea erabaki nuen. Hori horrela, hasieran gehitu nahi nion umore hori ezabatu egin nuen erabat eta azken emaitza film gogorra izan da.

Zelanbait *Topeka*-ren ildotik joan nahi nuen hasiera batean, baina filmatze prozesuak berak bestera eramanez ninduen.

Etorkinak eta itsasoa. Zergatik aukeratu zenuen gai hori?

Duela urte asko, egunkarietako lehen orrian hondartza batera iritsitako etorkinaren gorpua azaldu zen. Gorpuak hainbat hilabete zeramatzen uretan eta oso

zuri zegoen, nahiz eta fakzioak gizon beltzarenak ziren. Irudi hark izugarri hunkitu ninduen.

Gaur egun halako irudi asko agertzen da komunikabideetan eta badirudi halakoak ikustera ohitu egin garela, immunizaturik gaudela, halakoak ikusita ez dugula inola erreakzionatzen. Horren aurrean erabaki nuen film labur hau egitea: probokatzeko eta barruak astintzeko. Ez du besterik.

Hainbat film labur egin eta gero, film luze egin zenuen jauzi, *Aupa, Etxebeste*-rekin. Orain, berriz, film laburrera pasatu zara. Akaso film laburrek arazo edo lan gutxiago ematen dutelako?

Ez. Bueno, ez dakit. Formatu kontua gutxienean dela uste dut. Gogoz nengoen film luzea egiteko, esperientzia moduan oso interesgarria, aberasgarria eta zaila delako, besteak beste. Baina *Sarean* laburra aspaldi neukan pentsatuta eta bere garaian ez nuen egin denbora faltagatik. Bestalde, *Sarean* egiteko dirulaguntza ere jasota neukan Jaurlaritzatik eta egin beharra neukan epea amaitu aurretik.

Horrez gain, film laburra egiteak errazagoa eman dezake, denbora aldetik ez duelako horrenbesteko lanik eskatzen, baina, bestalde, istorio bat kontatzeko oso formatu polita da. Azken batean, luzean zein laburrean istorio bat kontatzen da eta ez dut inongo konplexurik batetik bestera pasatzeko.

Donostiako Zinemaldian aurkeztu zenuen *Aupa, Etxebeste*. Hainbat hilabete igaro dira. Atzera begiratu gero zer ikusten duzu?

Egia esan, denbora luzea igaro da. Estreinaldiaren aurretik bi urteko lana izan da *Aupa, Etxebeste* egitea, eta esan liteke denbora horretan guztian *okupa* familia izan dudala nire etxean.

Filma gustuko delako oso gustura nago. Bestalde, Telmo Esnalendako eta niretako erronka handia zen eta daukagun guztia eman genuen filma egiteko orduan. Alde horretatik ere oso gustura gaude. Lan handia izan zen, baina etekina ere ona izan da. Film luze gehiago egiteko gogoia ematen du horrek.

Lana berriro ikusita eta esperientziak ematen duen eskarmentuarekin, aldatuko zenuke zerbait *Aupa, Etxebeste*-tik?

Nik uste dut hori beti gertatzen dela, nahiz eta filma itxita geratzen den eta ezin den ezer aldatu. Oro har, gogobetetzea han-



Asier Altuna *Kixi* Elgetako Espaloian izan zen eguaztenean.

dia izan da eta gustura geratu naiz lanarekin... Baina bai, gauza asko aldatuko nituzke: hainbat plano, prozesuan egon diren gauza desatsegin guztiak, beste banaketa modu bat, saltzeko modu bat egingo nuke, ez nuke bikoiztutako bertsiorik aterako –neure esku egongo balitz, behintzat–.

"Sarean"-en istorioa erabatekoa da; ikusleak zaplaztekoa hartzen du ikustean"

"Ez dut inongo konplexurik film luze batetik film labur batera pasatzeko"

Baina guztiaren artean bi gauza aldatuko nituzke: batetik, saltzeko era aldatuko nuke, eta, bestetik, ez nuke bikoiztutako bertsiorik aterako. Azken hori izan da prozesuan izan dugun zamarik handiena. Ekoizleekin eta banatzaileekin izan dugun borrokatxo pertsonala ere izan da hori.

"Aupa, Etxebeste"-rekin bikoiztutako bertsioarena zama izan da"

"Artalde bat du oinarri marrazki bizidunen gidoiak. Adin guztietarako izango da"

Dena den, emaitza ikusi eta gero, eurek ere onartu dute gaizki egin dutela, ez zegoela bikoiztutako bertsiorik ateratzeko beharrik. *Aupa, Etxebeste* aukera oso ona zen, behingoz, bertsio originalaren aldeko apustua egiteko, hori sustatzeko, eta ekoizle eta banatzaileek jarrera nahiko atzerakoia izan dute horretan. Bestalde, nik ulertzen dut honetan guztian dirua dagoela. Guk, behintzat, oso garbi geneukan hasieratik hori. Bestetik, aterako bertsio bikoiztua ez da izan oso... Osorik ez dut ikusi, sekuentzia bat besterik ez, eta, egia esan, lotsa apur bat eman zidan...

Elgetako emanaldian azpitolurik gabeko euskarazko bertsioa eman zenuen. Lehenengoz, uste dut, gainera.

Bai, egia da. Eta ikusleek esan zuten askoz gehiago gozatu zutela modu horretan azpitoluekin baino. Ni beti izan naiz azpitoluen aldekoa, baina ulertzen dut hainbat ikusleri traba egitea.

***Aupa, Etxebeste* hainbat lekutan erakutsi duzue. Joan-etorri horietako anekdotarik izango duzu.**

Badut bat oso polita. Badakizu Iberiak filma erosi zuela nazioarteko hegaldietan emateko. Bada, badut Venezuelako lagun bat Galizian bizi dena. Galiziara zetorren aldi batean *Aupa, Etxebeste* jarri zioten hegazkinean eta alboan zuten adineko emakume-ari kontatu zion nola film haren zuzendariaren laguna zen. Guztia ondo zihoan, filmean katua jaten duteneko eszena iritsi zen arte. Une hartan emakumea aulkitik altxatu eta errieta egin zion nire lagun hari. Baita azafatei erreklamazio orria eskatu ere. Antza, animaliak babesteko elkarteren bateko kide zen.

Eta zer duzu orain esku artean? Beste film luzeraren bat, akaso?

Hori oso prozesu luzea izaten da. Orain, marrazki bizidunen istorio bat idazten dihardut. Ekoizpen etxe bati saldu diot, dagoeneko, eta artalde baten oinarritutakoa da.

Oraingoz ez dago besterik, gidoia saldu besterik ez dut egin, eta idazten ari naiz. Gero, filma egingo den ikusteko dago, denborak esango du hori: dirua bilatu behar da... Prozesu luzea da, esan bezala.

Film luzea izango da? Publiko guztiarendako?

Bai, ume zein nagusiendako izango da eta umore handiko korapiloa izango du. Eta bai, formatu luzea izango du.

Mundu osoko musika instrumentu tradizionalak erakusketan izango dira

Guztira, 75 kultura eta herrialdetako 150 musika tresna erakutsiko ditu 'Ikusteko Musika' erakusketak, Bergaran

Leire Kortabarria

Mundu osoko kulturen eta herrien musika instrumentuak ezagutzeko aukera izango da *Ikusteko Musika* erakusketari esker. Bergarako Aroztegi aretoan inauguratuko dute egubakoitzean, hilak 5, 19:00etan, eta bisita gidatua izango da.

Bost kontinenteetako 75 herrialdetako 150 musika tresna batzen dira. Denak erritual, tradizio eta folklorea erabili izan dira, eta horregatik, asko eta asko ez dira dagoeneko erabiltzen.

BUREZURREZ EGINDA

Musika tresnen lau familia handietako instrumentuak daude,

eta familia bakoitzeko azpi-familiak ere; hortaz, mota guztietako musika instrumentuak daude. Eta Euskal Herriko tresna batzuk ere egongo dira.

Tresna horien bidez, kultura bakoitzaren gainean gehiago ikasi ahal izango da; izan ere, musika tresnak herri baten izaeraren isla dira. Soinuak egiteko tresnak lortzeko giza askakuntza noraino iritsi den ere erakutsiko da: hala, bi giza burezurrekin egindako Mongoliako danbor bat dago ikusgai, adibidez.

Instrumentu horiekin egindako musika entzuteko aukera izango da, 120 abestirekin; eta tresnon gainean gehiago ikastea CD-ROM bat erabili ahal izango da.

HELBURUAK BETETZEN

Horrenbestez, Bergarako Aroztegi aretoarekin, jarritako helburuak erdiesten ari da Udala: hain zuzen, ibarreko artistei erakusketak egiteko aukera ematea; eta, bestetik, gurean ikusteko aukera egon ez diren maila bateko erakusketa erakargarriak ekartzea.

Labur

'Idazleak irakurle' gomendio gida dago Arrasateko liburutegian

Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko, *Idazleak irakurle* izeneko gida kaleratu du Arrasateko Udal Liburutegiak, eta hantxe dago eskuratzeko modua. Iban Zaldia idazleak prestatu du gida, eta honako idazle euskaldunetako bakoitzak hamar bat irakurketa gomendio egiten ditu: Ur Apalategik, Ana Arregik, Rikardo Arregi Diaz de Herediak, Harkaitz Canok, Aingeru Epaltzak, Igor Estankonak, Estibaliz Ezkerrak, Arantxa Iturbek, Anjel Lertxundik eta Eider Rodriguezek.

Bergara Hiria argazki lehiaketaren 22. edizioa antolatu dute

Bergara Hiria argazki lehiaketako deialdia egin berri dute. 22. edizioa du sariketa horrek. 540 euro banatuko dituzte lau saritan: 180 euroko lehen saria, 150eko bigarrena, 120ko hirugarrena, eta 90 eurokoa Bergarako onenarendako.

Lanak zuri-beltzean edo koloretan aurkez daitezke, 40 x 50 zentimetroko kartulinan. Bergarako udaletxean aurkeztu behar dira, eta maiatzaren 23a da horretarako mugaeguna. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 30 90 telefono zenbakira.

Maria Dolores Lonbide margolari soraluzetarraren erakusketa

Maria Dolores Lonbide margolari soraluzetarrak erakusketa dauka Elgetako Espaloia antzokian, eta bihar, martitzena, duzue bisitatzeko azken eguna.

Maria Dolores Lonbide txikitatik margotu eta marraztu izan du, eta ametsen munduan aurkitzen du inspirazioa. Naturako argitasuna eta islak margotzen ditu askotan, argiz betetako paisaiak.

Hainbat erakusketa izan ditu Lonbidek, gehienak Eibarren, eta baita Soraluzen eta Bergaran ere.

Hitzorduak



'GOMENDATZEN DIZUT...' LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA DAGO | Arrasateko eta Bergarako gazte informazio zerbitzuek egin dute sariketako deialdia

Gomendatzen dizut... lehiaketak arrakasta izan du aurreko edizioetan, eta Aste Santuko oporrak pasa berri direla-eta, berriro egin dute deialdia Arrasateko eta Bergarako gazte informazio zerbitzuek. Oporren gaineko gomendioak bulego horietan utz daitezke, ahal bada argazkiarekin (irudian,

Senegalgo hondartza bat). Bulego bakoitzak bere saria banatuko du: bai Arrasaten, bai Bergaran, 500 eurotan baloratutako oporraldia; eta Arrasaten, 17 urtetik beherako irabazlearendako, 3-4 lagunendako irteera. Lehiaketaren gaineko informazio zabalagoa www.aizue.com blogean duzue.

ZINEMA |

- **Crash filma emango dute Arrasateko Amaia antzokian** Gaur, astelehena, emango dute film hori, 20:30ean. Oscar sarieran film onenaren saria irabazi zuen lan horrek.
- **Firewall filma ikusteko aukera dago Oñatin** Gaur, astelehena, emango dute film hori Oñatiko kultura etxean, 19:30ean.
- **Tocando el vacío filma emango dute Elgetan** Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

IKUSKIZUNAK |

- **Ahulkiak antzerki eta errezitaldia egingo dute** Itziar Lamuedra eta Patxi Santamaria aktoreek eta Harkaitz Cano idazleak testuetan oinarritutako *Ahulkiak* emanaldia egingo dute bihar, martitzena, Arrasateko kultura etxean, 19:00etan.

LEHIAKETAK |

- **San Juanetarako kartel lehiaketa Arrasaten** Udalak deitutako lehiaketa. 2006 *San Juan Jaiak Arrasate* testua eraman beharko dute lanek. Egileak kontuan izan behar du aukeratutako irudia jaietako egitarauaren azalean erabiliko dela. Jai egitarauaren neurria 28 x 21 cm-koa

izango da. Irabazleak 750 euroko saria jasoko du. Lanak jasotzeko epea maiatzaren 19ra arte dago zabalik.

- **Pazkoetarako kartel lehiaketa deitu dute** Bergarako Udalak deitu du lehiaketa eta lanak aurkezteko epea apirilaren 28ra arte dago zabalik. *Pentekoste Jaiak 2006 Bergara* testua eraman beharko dute kartekek. 600 euroko saria dago.
- **Arrantzaren inguruko argazki lehiaketa deitu dute** Arrantzaren inguruko argazki lehiaketa antolatu du Alzu dendak, Suministros Eviaren batera. Lanak dendan utzi behar dira, edo iarrese@hotmail.com helbidera bidali. Saria da arrantza materiala.

ANTZERKIA |

- **Euskara sencilloaren manifestoa antzezlana** *Euskara sencilloaren manifestoa* antzezlana egingo du Biko-teatroa taldeak egubakoitzean, hilak 5, Bergarako Pol-Pol tabernan, 22:30ean, Jardun elkarteak antolatuta.

IKASTAROAK |

- **Argazki ikastaroan izena emateko aukera dago** Bergarako Pol-Pol Argazki Taldearen eskutik, argazkigintza analogiko eta digital ikastaroa emango dute

maiatzaren 8tik 31ra. Izena emateko epea maiatzaren 4ra arte zabalik. Argibideak, 943 77 91 59 telefono zenbakian.

MUSIKA |

- **3.60 aretoan bi kontzertu izango dira asteburuan** Honako kontzertuak egongo dira Arrasateko 3.60 aretoan: *Far From Finished* (AEBak) eta *Hell Berr Boys* taldeak egubakoitzean, hilak 5, 23:00etan; eta Gertrudis (Katalunia) zapatuan, hilak 6, 23:00etan ere.
- **Hainbat talderen kontzertua izango da Jam aretoan** *No Use For A Name*, *The Lawrence Arms* eta *Versus The World* taldeek joko dute Bergarako Jam aretoan maiatzaren 6an, 21:00etan. Sarrerak salgai daude 16 eurotan.
- **Doro, Sonata Arctica eta Altaria taldeak Jamen** Doro, Sonata Arctica eta Altaria taldeek kontzertua egingo dute hilaren 7an, domeka, Bergarako Jam aretoan, 19:00etan.

ERAKUSKETAK |

- **Euskal Idazle Gazteen inguruko erakusketa** XXI. mendeko euskal idazle gazteak hobeto ezagutarazteko helburuarekin, erakusketa ibiltaria antolatu du Euskal Idazle Elkartek, eta Monterron kultura etxean dago maiatzaren 5era arte.

Eguraldia



Polit hasiko dugu astea, baina eguaztenerako okerrera egingo du

Eguraldi eguzkitsua izango dugu gaur ere, nahiz eta laino bakanen bat ere ikusiko dugun zeruan. Goiz partean fresko samar egingo duen arren, eguerdirako gora egingo dute tenperaturek, eta eguna gozotu. Bihar ere, martitzena, egun eguzkitsua izango dugu eta hego-mendebaleko haizearekin, tenpe-

raturak gora egingo du. Etzi, eguaztzena, okerrera egingo du eguraldiak. Lainoak areagotu egingo dira eta hori eguen eta egubakoitzean izango dugun eguraldiaren aurrerapena izango da: eguenean, estalita egongo da zerua eta litekeena da euria egitea; barikua ere antzekoa izango da.

Goardiako farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 1	Amezua	Santa Marina, 32 (943 79 09 74)
Martitzena, 2	Morales	Araba etorbidea, 14 (943 79 18 65)
Eguaztzena, 3	Ruiz Perez	Maalako Arrabala, 31 (943 77 14 09)
Eguena, 4	Zabala	Zarugalde, 42 (943 77 16 30)
Egubakoitza, 5	Azkoaga	Ferrerias, 1 (943 79 15 15)

BERGARA

Astelehena, 1	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
Martitzena, 2	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
Eguaztzena, 3	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Eguena, 4	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
Egubakoitza, 5	Camacho	Oxirondo, 4 (943 76 11 74)

OÑATI

Astelehena, 1	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Martitzena, 2	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)
Eguaztzena, 3	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Eguena, 4	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Egubakoitza, 5	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)

ARETXABALETA

Astelehena, 1	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Martitzena, 2	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguaztzena, 3	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguena, 4	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Egubakoitza, 5	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 03 54 00
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06

Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	902 54 32 10
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Antzuola	943 76 61 81
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 77 12 64
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	902 24 02 02

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltzaga (Zubillaga)	943 78 15 12
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 71 21 17
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Idolaz / Antzuola	943 78 70 56
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Laixan / Oñati	943 71 63 11
Txiritola / Aram.	945 44 52 66

Hondakindegia Alternatiboak

Arrasate	943 77 11 43
Bergara	943 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegia

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak

Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 24	4 • 9 • 17 • 18 • 22 • 29
Osagarria: 7 Itzulketa: 6	
Martitzena, 25	15 • 29 • 34 • 37 • 42 • 44
Osagarria: 36 Itzulketa: 0	
Eguaztzena, 26	24 • 25 • 26 • 28 • 35 • 40
Osagarria: 3 Itzulketa: 1	
Egubakoitza, 28	5 • 17 • 29 • 33 • 46 • 47
Osagarria: 18 Itzulketa: 8	

ONCE

Astelehena, 24	86.166
Martitzena, 25	78.607
Eguaztzena, 26	35.404
Eguena, 27	58.744
Egubakoitza, 28	41.619
Kupoitzarra (052 seriea)	
Domeka 30	08.781
Kupoitzarra (031 seriea)	

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 27	3 • 15 • 17 • 32 • 36 • 45
Osagarria: 35 Itzulketa: 1	
Zapatua, 29	27 • 28 • 31 • 34 • 35 • 42
Osagarria: 47 Itzulketa: 3	
Zapatua, 29 (Saritzarra)	16 • 17 • 19 • 28 • 53
Itzulketa: 1	

Gazte zerbitzuak

BEKAK |

• **Doktoretza aurrekoa.** Eusko Jaurlaritzaren. Lizentziadunendako 2006/07 bekak. Epea: maiatzak 20.
• **Europa.** Eusko Jaurlaritzaren. Europako gaien informazio eta zabalkunde proiektuak egiteko bekak. Epea: maiatzak 12.

EKINTZAK |

• **Paint-balla.** Bergarako Udala. 12-20 urte artekoendako. Maiatzaren 20an izango da. Epea: maiatzak 13.
• **Mihiluze VIP.** MHLZ berezia minbiziaren kontra. Maiatzaren 5ean autobusa Arrasateetik. 17 urte gorako gazteentzat. Epea: plazak bete arte.
• **Auzolandegiak.** Martuteneko presoekin lan egiteko auzolandegiak uztailean. Plazak mugatuak dira.

IKASTAROAK |

• **Taila Ikastaroa.** (Hasierako maila). Arrasateko Tailaginen elkarteak. Epea: plazak bete arte.
• **Janari erabiltzaileen ikastaroa.** Gipuzkako Foru Aldundia. Maiatzaren 13an izango da, Gaztegunen. Epea: maiatzaren 8an bukatuko da.
• **Langabeak.** Langabeentzako mantentze-lanetako argiketari ikastaroa Elgoibarren. Epea: plazak bete arte.
LEHIAKETAK |
• **'2006 San Juan Jaiak Arrasate' irudi lehiaketa.** Arrasateko Udala. 750 euroko saria. Epea: maiatzak 19.
• **Bergara Hiria 22. Argazki Lehiaketa.** Bergarako Udala. Argazkiak zuri-beltzean edota koloretan aurkez daitezke. Izenemate epea: maiatzak 23.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net



Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Bertan salgai

Antzuola:

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

Elgeta:

- Kioskoa

Bergara:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruko okindegia

Aretxabaleta:

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:

- Labidea

Aramaio:

- Plazako kioskoa

Oñati:

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibari okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Eider Calleja
Apirilaren 5ean, 5 urte. Zorionak! Arizmendi SanVi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Imanol Elkorobarrutia
Apirilaren 12an, 6 urte. Zorionak, Sanvi Txikikoak.



ARRASATE
Alaitz Alzola
Apirilaren 13an, 6 urte. Zorionak, Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Nekane Cabrera
Apirilaren 15ean, 3 urte. Zorionak! Arizmendi San Viator Txiki.



ARRASATE
Aitziber Telleria
Apirilaren 17an, 5 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Imanol Barandiaran
Apirilaren 17an, 6 urte. Zorionak eta musu bat! Familiaokoen partetik.



ARRASATE
Dorleta Martin
Apirilaren 25ean, 6 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Aitor Murgiondo
Apirilaren 25ean, 5 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Eleder Fernandez
Apirilaren 27an, urtebete. Zorionak eta musu bat! Naroa eta etxekoak.



ARRASATE
Sergio Azkarate
Apirilaren 29an, urteak. Zorionak eta urte askotarako. Lankideak.



ARRASATE
Ekai Man Jon
Apirilaren 30ean, 4 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Danel Arrillaga
Maiatzaren 7an, 2 urte. Zorionak! Familia guztiaren partetik.



BERGARA
Aritz Izagirre
Apirilaren 28an, 5 urte. Zorionak, gurasoen eta arreba Iratiren partetik.




BERGARA
Aratz Arenaza
Apirilaren 30ean, urtebete. Zorionak, gurasoen eta arreba Aneren partetik.



BERGARA
Alazne Urkiola
Maiatzaren 1ean, 3 urte. Zorionak, polita, etxeko guztien partetik.



BERGARA
Begoña Agirrebeitia
Maiatzaren 3an urtebetetzea. Zorionak, amama. Haizea, Ander eta Iker.



BERGARA
Mikel Larrañaga
Maiatzaren 3an, urtebete. Zorionak, lehengusuen partetik.



BERGARA
Ruth Maucho
Maiatzaren 5ean, 7 urte. Zorionak, Sara eta gurasoen partetik.



BERGARA
Ane Bretaña
Maiatzaren 7an, 3 urte. Zorionak, gurasoen eta anaia Andoniren partetik.



ARETXABALETA
Aner Idigoras
Apirilaren 24an, 3 urte. Zorionak eta musu handi bat. Etxekoak.



ARETXABALETA
Ane San Miguel
Apirilaren 25ean, 2 urte. Zorionak eta musu bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Igotz Idigoras
Apirilaren 25ean, urtebete. Zorionak eta musu handi bat. Etxeko guztiak.



ARETXABALETA
Markel Pando
Apirilaren 29an, 2 urte. Zorionak eta musu handi bat. Etxekoak.



ARETXABALETA
Maialen Diez
Maiatzaren 7an, 3 urte. Zorionak eta musu bat. Etxekoak eta lagunak.



ARETXABALETA
Mirari Altube
Maiatzaren 7an, urtebetetzea. Zorionak, guapa! Lanekoak.



ESKORIATZA
Ander Zubia
Apirilaren 27an, 10 urte. Eskoriatzako surflari onenari zorionak.



ESKORIATZA
Itsaso Eraña
Apirilaren 27an, 12 urte. Zorionak eta urte askotarako. Etxekoak.



ESKORIATZA
Unai Beloki
Maiatzaren 2an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako. Etxekoak.



OÑATI
Nagore Zabaleta
Maiatzaren 3an, 33 urte. Zorionak eta urte askotarako. Koadrilakoak.



ARAMAIO
Aitor A. Arexolaleiba
Maiatzaren 2an, 31 urte. Zorionak! Etxeko partetik.

Jaiotakoak



Mikel Igartza Amasorrain
Bergara • 3,550 Kg. Apirilak 24.
Gurasoak: Iñigo (Bergara) eta Miren (Antzuola). Argazkian: Mikel gurasoekin.



Lia Aierbe Gomez
Bergara • 3,780 Kg. Apirilak 25.
Gurasoak: Pablo (Eibar) eta Ines (Arrasate). Argazkian: Lia aitaren besoetan.



Saioa Betelu Urisabel
Oñati • 4,020 Kg. Apirilak 26.
Gurasoak: Xanti (Oñati) eta Joana (Bergara). Argazkian: Saioa amamaren besoetan.



Urko Zelaia Gonzalez
Oñati • 3,420 Kg. Apirilak 26.
Gurasoak: Jokin (Oñati) eta Marian (Oñati). Argazkian: Urko aitarekin.



Alex Zubia Gabian
Oñati • 3,660 Kg. Apirilak 27.
Gurasoak: Aitor (Oñati) eta Maria Jose (Oñati). Argazkian: Alex bapo lo.



Ibai Bolinaga Kortabarria
Arrasate • 3,540 Kg. Apirilak 29.
Gurasoak: Iñaki (Arrasate) eta Miren (Aretxabaleta). Argazkian: Juanita amamarekin.


Hildakoak

Benito Quintana Pozo
Bergaran, apirilaren 26an. 90 urte.

Felisa Ugalde Zubimendi
Elgetan, apirilaren 27an. 84 urte.

Hilario Altuna Errasti
Eskoriatzan, apirilaren 27an. 66 urte.

Paco Santana Cid
Bergaran, apirilaren 27an. 53 urte.



ESKELAK
ASTELEHENKO
GOIENKARIAN

85 euro
943 25 05 02

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ASTELEHENKO GOIENKARIAREN bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emazioz ezusteko ederra!

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7
'Igo autobusera' | 10:35

Efemerideak gaur eta Pablo Ibarren kasua bihar

Asteko gainbegiratu gaur: Realeko eta Txernobilgo efemerideekin lotutako elkarrizketak, besteak beste. Bestalde, Pablo Ibarren gainean egingo dute berba martitzenean, Pilare Pereda arrasatearra haren lehengusina da-eta.

Oñati Irratia

FM 107.4
'Eguerdi saioa' | 12:15

Txernobilgo hondamendia martitzenean

Txernobilgo istripu nuklearraren 20. urteurrena bete berri da. Hori dela eta, Oñatin bizi den emakume ukrainar bat elkarrizketatuko dute bihar eta Ukrainako hondamendiaren gaineko erreportajea eskainiko dute.

Euskadi Irratia

FM 104.4
'Faktoria' | 10:00

Lan ondorengo bizimodua aztergai

Radio Euskadi

FM 98.2
'Más que palabras' | 09:00

Maiatzaren Lehena: sindikalistak mintzagai

Herri Irratia

FM 99.8
'Kalez kale' | 11:30

Asteburuak emandakoari gainbegiratu

GOITB programazioa

Astelehena, 1



'Ilunpean' saioko errepikapena

21:15
Gaur, maiatzak 1, programazio berezia izango da GOITBn. Besteak beste, Oihana Elortzak *Kixi* Altunari egindako elkarrizketa ikusteko aukera izango da.

08:00 Emisio hasiera.

08:05 Marrazki bizidunak bilduma.

11:00 Behazulo: Gaztetxe martxa.

11:30 Ilunpean. *Kixi* Altunari egindako elkarrizketa.

12:00 Eltze beroa.

12:15 16 mm. Inas Fernandez *Hauspo soinua*.

12:45 Sustraia.

13:15 Elkartasun bideak.

13:45 Didjeridu.

14:15 Klip@. Musika taldeen bideoklipak.

14:45 Astekoak.

15:00 Jazz mintegia.

15:30 MKT.

16:00 Teknopolis.

16:30 Didjeridu.

17:00 16 mm.

17:30 Marrazki bizidunen bilduma.

19:15 Eltze beroa.

19:30 16 mm. Inas Fernandez *Hauspo soinua*.

20:00 Behazulo.

20:30 Zera dio eta Motzean.

20:45 Ilunpean.

21:15 Teknopolis.

21:45 Didjeridu.


22:15 Elkartasun bideak.

22:45 16 mm.

23:15 Erreportajea.

23:45 Emisio amaiera.

Martitzena, 2



'Berbaire': gizarte eta politikako gaiak

22:15
Gizarte eta politikako gaiak jorratuko dituzte Gorka Etxabek aurkezturiko *Berbaire* saioan. Hainbat gonbidatu izango ditu Etxabek.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Jazz zikloa.

14:15 Zera dio: Afrika eta Kike Amunarriz.

14:30 Mi.

14:45 Gaurkoak.

14:47 Eltze beroa.

15:00 Elkartasun bideak.

15:30 Mi.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Behazulo.

16:15 Klip@.

16:30 Mi.

16:45 Albiste aurrerapena.

17:00 Jazz zikloa.

17:30 Danbaka saioan Enboskada.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Erreportajea: Makila egilea.

18:15 Munduari bueltaka: Thailandia.

18:45 Albiste aurrerapena.

19:00 Klip@.

19:15 Ilunpean.

19:45 Albisteak.

20:15 Marrazki bizidunak.

20:45 Berriak.

21:15 Ilunpean: Asier Altuna.

21:45 Albisteak.

22:15 Berbaire.

22:45 Berriak.

23:15 Behazulo.

23:45 Albisteak.

00:15 Amaiera.

Eguaztena, 3



Debagoieneko albisteak

22:15
Egunak emandakoak jarraitzeko aukera izango duzue GOITBko albistegiaren, Deiane Arrieta eta Julen Iriondo aurkezlearen eskutik.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Berbaire.

14:15 Danbaka.

14:30 Mi.

14:45 Albiste aurrerapena.

15:00 Teknopolis.

15:30 Mi.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Behazulo.

16:15 Klip@.

16:30 Mi.

16:45 Albiste aurrerapena.

17:00 Berbaire.

17:30 Zera dio.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Sustraia.

18:15 Teknopolis.

18:45 Albiste aurrerapena.

19:00 Klip@.

19:15 Didjeridu.

19:45 Albisteak.

20:15 Marrazki bizidunak.

20:45 Berriak.

21:15 Teknopolis.

21:45 Berriak.

21:47 Debarri: Elgetako alkate Patxi Basauri protagonistia.

22:45 Berriak.

23:15 Erreportajea: msakila egilea.

23:45 Albisteak.

00:15 Amaiera.

Eguena, 4



Arkaitz Zubiaga 'Didjeridu' saioan

22:15
Zabaldu.com webgunearen sortzaile Arkaitz Zubiagari elkarrizketa. Era berean, ohiko tarreak: sexologia, teknologia eta aisialdirako proposamenak.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Erreportajea: makila egilea.

14:15 Zera dio.

14:30 Mi.

14:35 Gezi-bideak.

14:45 Albiste aurrerapena.

15:00 Sustraia.

15:30 Mi.

15:35 Sendabelarrak.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Debarri.

16:45 Albiste aurrerapena.

17:00 Jazz mintegia.

17:30 MKT musika.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Elkartasun bideak.

18:15 Iparrorratza: Palestina.

18:45 Albiste aurrerapena.

19:00 Klip@.

19:15 Erreportajea.

19:45 Albisteak.

20:15 Marrazki bizidunak: Card Sakura.

20:45 Berriak.

21:15 Sustraia.

21:45 Albisteak.

22:15 Didjeridu.

22:45 Berriak.

23:15 Berbaire.

23:45 Albisteak.

00:15 Amaiera.

Egubakoitza, 5



'Behazulo' saioa, Goiatz Aranarekin

21:15
Oraingo astean ere debagoien-darri eragiten dizkiguten hainbat gai plazaratuko dituzte Goiatz Arana kazetariak aurkezturiko saioan.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Berbaire.

14:15 Musika saioa.

14:30 Mi.

14:35 Gezi-bideak.

14:45 Albiste aurrerapena.

15:00 Iparrorratza.

15:30 Mi.

15:35 Sendabelarrak.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Didjeridu.

16:15 Klip@.

16:30 Mi.

16:35 Gezi-bideak.

16:45 Albisteak.

17:00 Berbaire.

17:30 Eltze beroa.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Ilunpean.

18:15 Teknopolis.

18:45 Albisteak.

19:00 Klip@.

19:15 Jazz mintegia.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak.

20:45 Albisteak.

21:15 Behazulo.

21:45 Berriak.

22:15 Ilunpean.

22:45 Albisteak.

23:15 16 mm.

23:45 Berriak.

00:15 Amaiera.

Kamera aurrean



"Disfrutatzen joan behar dugu EBA ligara igotzeko seiko finalera. Guretzat saria da azken fasea jokatzeko"

GORKA ZURUTUTZA | MUGARRI-ALKESAKO ENTRENATZAILEA
Berriak, 2006-04-27



"Erromerik Bergaran' egitasmoa egiten dugun aurreko aldia da, eta aurreikuspen onak ditugu"

MAIDER OSA | BERGARAKO KULTURA TEKNIKARIA
Berriak, 2006-04-27

Hauspo soinua

16mm

Inas Fernandez film laburra, Astelehenean, maiatzak 1, 12:15ean



Ikustekoa!

Maiatzaren 1a: 085 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, maiatzak 1, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 36 euro

2006 bukaerara arte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Loli Mayoral Lizarbe (Aretxabaleta)
- Maximo Uribesalgo Bengoa (Arrasate)


Bi gonbidapen FLORIDA - GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Txema Unamuno Loidi (Aramaio)
- Zorione Lete Barandiaran (Bergara)

Hiru gonbidapen Elgetako ESPALOIAN, ostiralean, larunbatean eta igandean izango diren magia ikuskizunentzako. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Malen Lezama (Elgeta)
- Mikel Lizarralde Okina (Bergara)
- Iñaxio Madina Arrondo (Oñati)

Maiatzaren 8ko sariak



- Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

EIBAR-VALLADOLID

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



Hamarrekoa

XABIER AMURITZA | BERTSOLARIA

“Esandakoa betetzen badut, bizar eta guzti hilko naizela uste dut”

Oihana Elortza

1. Zenbat bertso saio izaten dituzu urtean? Ez dakit, ez ditut zenbatzen. Horieta-ko batzuk urtero errepikatzen ditut; Elorregikoa, adibidez. Oholtza gainetan baino, elkarreetan sentitzen naiz erosoago.

2. Gai librean hobeto gai jartzaile baten agindupean baino? Duda barik. Aspaldi honetan, gainera, horrelaxe nabil, gai libreko saioetan. Koplak ere izugarri maite ditut. Beste erritmo bat dute horiek, biziak dira eta soinujoleekin batera gustura ibiltzen naiz, eta jendeak ere gustura entzuten dituela iruditzen zait.

3. Non dituzu Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusiko bi txapelak? Txapelak emazteak ditu gorde-ta hor nonbait, baina agerian dudana, ordea, txapelarekin batera eman zidaten Oteitzaren irudia da; txapelak berak baino ilusio handiagoa egin zidan ia irudi horrek.

4. Noiztik duzu bizarra? 1980ko txapelketan ez nuen bizarrik eta 1982koan bai. Harrezkero ez dut

kendu. Gainera, euskara salbu ikusi arte ez dudala moztuko esan nuen behin, eta uste dut bizar eta guzti hilko naizela...

5. Nola antolatzen dituzu egunak? Astean hiritan *Anboto* aldizkarira joaten naiz eta gainerakoetan hara eta hona ibiltzen naiz.

6. Etzi egingo dituzu 65 urte. Erretiroa hartuko duzu? Berandu hasi nintzen lanean eta lanean nabil orain, baina udan erretiratuko naiz. *Anboto* aldizkaritik hartuko dut orduan erretiroa; ez ordea, beste gutzitik. Hala ere, martxa motelduko dut, idatzi egin gura dut-eta. Militantzia ez dut utziko.

7. Baserriko lanetan ere ibiltzen zara? Ez dugu ez orturik ez animaliarik, fruitu-arbolak bakarrik. Auzoko ardiak ibiltzen dira gurean, eta horiei ogi lehorra ematen gustura egoten naiz.

8. Zer egiten duzu ahotsa zaintzeko? Ezer ez. Aste barruan ez dut askorik kastigatzen, baina asteburuan saioa edukiz gero astelehentan ez dut batere ondo izaten.



JOSETXO ARANTZABAL

Azken urteotan, urtero dator Xabier Amuritz Elorregiko San Prudentzio jaletara Anjel Mari Peñagarikanorekin batera. Auzoko elkartearen bazkaltzen dute eta iluntzera arte luzatzen dute bazkalostea. 65 urte egingo ditu eguaztenean, eta pentsatu du erretiroa hartzen duenean zer egin: bakarrik egoteko aprobe-txatuko du, bakarrik egin beharreko hainbat proiektu ditu-eta.

9. Jendaurreko elkarrizketak egiten dituzu oraindik Plateruenean? Orain ez; sutenaren astean egin genuen azkena. Lau politikari elkarrizketatu ditut, baina ez dakit saioak jarraipena izango duen.

10. Abadeak horren ondo bizi direla jakinda, zergatik utzi zenion abade izateari? Ez dakit ondo bizi diren, abade gutxi dago-eta hori horrela izateko. Hiru urte eta erdi egin nituen nik abade.



Biharamuna

Jon Berezibar

Hariak eta iruleak

Pailazoez eta titiriteroez umetatik sortarazi didate egonezina. Lehenek, aurpegi amorfo horiek inozotzat hartu gura gaituztelako eta bigarrenek ezkutuko hariekin trapa egiten digutelako. Ez naiz ari, noski, **Itsaso Azkarate** moduko aktoreez edo asko jota buruko mina eragiten duten pailazoez. Haien izen ona ostuta, pailazo eta tirititero zikinagoak ere badaude, kapelatik untxiak edo tren azkarrak ateratzen dituztenak, *artxila murtxila*, butakan gelditu gaudenok ez zelan eta ez zertarako oraindik ez dakigula. Hori-ek sortzen dute egonezina. Tiritit-roez eta azpikeriaz maiatzaren leheneko biharamunean jardutea agerikoegia gerta daitekeen- ez, gaiz aldatzea onena nire lehen *biharamun* honetan. Gora-go letra lodiz idatzitakoak esan bezala, txotxongiloak nagusien-dako dira eta ez zaio arrazoi apurrik falta Bergarako aktoreari. Azpiko hari- ez ere asko dakite eguenean geuretik igarotako martxistek. Agian prestidigitazio kontuetan ez dira iaioenak, baina azpiko lan barik askatasun gotorleku gutxi egongo lirateke gazteentzat. Hala agertu zuten Arrasateko Gaztetxeo tximeleta batzuek egueneko ekitaldian eta poztekoa da **Nerea Ruiz de Azua**, asanbladako kideak, azaldu moduan euriak ez duela Gaztetxeen udaberria zapuztu. Animo hari-ekin gaztetxeetako amaraun hori iruten zabilzatenoi eta Iruñeko jaialdia debekatu arren domekan Burlatan zuek ere kaperak dituzuela ikusiko dugu.

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

WEBGUNEAN ➔ www.smsoinu.com

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zembakira
SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZA**

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abestaria) | KODEA

Himnoak
Eibar | **EBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Real | **REAL**
Real Union | **UNION**

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxo) | **BAI**
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | **BIZKAIA**
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | **EUSKAL**
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | **EUSKALDUN**
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**
Furra Furra (Oskorri) | **FURRA**
Galiziar noa (Oskorri) | **GALIZIARA**
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | **GERNIKA**
Haika Mutil (Mikel Laboa) | **HAIKA**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | KODEA

Izarren hautsa (Xabier Lete) | **IZARREN**
Lepoan hartu ta (Pantxo) | **LEPOAN**
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | **MARINE**
Nere herriko neska maite (B.Lertxundi) | **NERE**
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | **NON**
Dil Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | **OIAMA**
Tirauki (Oskorri) | **TIRA**
Txabamaballinabuz (Mikel Urdangarin) | **TXATXA**
Txoria txori (Mikel Laboa) | **TXORIA**
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordonika) | **ZAINDU**

Herrikoia
Bagare | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**
Ikusi Mendizaleak | **MENDI**
Pintxo-pintxo | **PINTXO**
San Simon eta San Judas | **SAN**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

LAU1	MUSKARIA	AIZKORAK
NUKLEAR	KALABERA1	EGUZKILORE3
SORGIN	POPATK	KAPUTX

1,2,3,4...Real! | **REAL**
Alboka | **ALBOKA**
Athletic leup!! | **LEUP**
Buztan bertsoa | **BERTSO**
Hartu... Aitaran ta semea... | **AITAREN**
Hartu... Ansar | **ANSAR**
Hartu... Argentinara | **ARGEN**
Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**
Hartu... Miami | **MIAMI**
Independentzia! | **INDEPEN**
Irrintzia | **IRRINTZI**
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**
Milazu (pilota) | **MILAZU**
Suprina | **SUPRINU**
Tobera | **TOBERA**
Txalaparta | **TXALA**
Txanbela | **TXANBERA**
Txoootx | **TXOTX**

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeke, jar zaituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea duan da eta Ki jaitziera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemari alta ematea duan dira.
* Euskaltel deitu 900 84 02 00 telefonora. * Vodafone deitu 123-er. * Movistar deitu 609-er.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzaitegu abesti eta logoak. Webgunen honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.